**Fundación Bancaria Kutxa – Kutxa Banku Fundazioa eta Mendeko Sozietateak (Talde Kontsolidatua) BALANTZE KONTSOLIDATUAK**
**2019ko ETA 2018ko ABENDUAREN 31n (*)**
(Milako euro)

| | AKTIBOA | 2019 | 2018 (*) |
|---|---|---|---|
| **A)** | **AKTIBO EZ-KORRONTEA** | **1.806.696** | **1.741.818** |
| **A-1)** | **IBILGETU UKIEZINA (6. oharra)** | - | - |
| **A-2)** | **ONDARE HISTORIKOAREN ONDASUNAK** | - | - |
| **A-3)** | **IBILGETU MATERIALA (7. oharra)** | **6.000** | **8.825** |
| I. | Lurrak eta eraikuntzak | 5.715 | 8.711 |
| II. | Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala | 88 | 75 |
| III. | Aribideko ibilgetua eta aurrerakinak | 197 | 39 |
| **A-4)** | **HIGIEZINETAKO INBERTSIOAK (7. oharra)** | **3.209** | **217** |
| **A-5)** | **INBERTSIOAK TALDEKO ERAKUNDEETAN ETA ELKARTUETAN EPE LUZERA (8. oharra)** | **1.735.887** | **1.673.500** |
| **A-6)** | **FINANTZA-INBERTSIOAK EPE LUZERA (8.2 oharra)** | **56.476** | **53.386** |
| **A-7)** | **ZERGA GERORATUARENGATIKO AKTIBOAK (14. oharra)** | **5.124** | **5.890** |
| **B)** | **AKTIBO KORRONTEA** | **85.926** | **48.243** |
| **B-1)** | **SALMENTARAKO MANTENDUTAKO AKTIBO EZ-KORRONTEAK (7. oharra)** | - | **64** |
| **B-2)** | **IZAKINAK** | - | - |
| **B-3)** | **ERABILTZAILEAK ETA JARDUERA PROPIOARENGATIKO BESTE ZORDUN BATZUK** | - | - |
| **B-4)** | **ZORDUN KOMERTZIALAK ETA KOBRATU BEHARREKO BESTE KONTU BATZUK** | **30** | **81** |
| **B-5)** | **INBERTSIOAK TALDEKO ERAKUNDEETAN ETA ELKARTUETAN EPE LABURRERA** | - | - |
| **B-6)** | **EPE LABURRERAKO FINANTZA-INBERTSIOAK** | - | - |
| **B-7)** | **EPE LABURRERAKO PERIODIFIKAZIOAK** | - | - |
| **B-8)** | **EFEKTIBOA ETA BESTE AKTIBO LIKIDO BALIOKIDE BATZUK (13. oharra)** | **85.896** | **48.098** |
| I. | Altxortegia | 85.896 | 48.098 |
| II. | Beste aktibo likido baliokide batzuk | - | - |
| | **AKTIBOAREN GUZTIZKOA** | **1.892.622** | **1.790.061** |

| | PASIBOA ETA ONDARE GARBIA | 2019 | 2018 (*) |
|---|---|---|---|
| **A)** | **ONDARE GARBIA** | **1.888.885** | **1.786.585** |
| **A-1)** | **FUNTS PROPIOAK (11. oharra)** | **1.885.190** | **1.785.649** |
| **I.** | **Fundazio-zuzkidura** | 30 | 30 |
| **II.** | **Erreserbak** | ######### | ######### |
| **III.** | **Erreserbak sozietate kontsolidatuetan** | (4.649) | (1.489) |
| **IV.** | **Erreserbak baliokidetzan jarritako sozietateetan** | 114.187 | 60.006 |
| **IV.** | **Ekitaldiko soberakina** | 95.031 | 89.055 |
| **A-2)** | **BALIOA ALDATZEAGATIKO DOIKUNTZAK (12. oharra)** | **3.695** | **936** |
| **A-3)** | **JASOTAKO DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK** | - | - |
| **B)** | **PASIBO EZ-KORRONTEA** | **1.288** | **377** |
| **B-1)** | **EPE LUZERAKO ZUZKIDURAK** | - | - |
| **B-2)** | **EPE LUZERAKO ZORRAK** | **3** | **3** |
| **B-3)** | **ZORRAK TALDEKO ERAKUNDEEKIN ETA ELKARTUEKIN EPE LUZERA** | - | - |
| **B-4)** | **ZERGA GERORATUARENGATIKO PASIBOAK (14. oharra)** | **1.285** | **364** |
| **B-5)** | **EPE LUZERAKO PERIODIFIKAZIOAK (8.1 oharra)** | - | **10** |
| **C)** | **PASIBO KORRONTEA** | **2.449** | **3.099** |
| **C-1)** | **EPE LABURRERAKO ZUZKIDURAK** | - | - |
| **C-2)** | **EPE LABURRERAKO ZORRAK** | - | **3** |
| **C-3)** | **ZORRAK TALDEKO ERAKUNDEEKIN ETA ELKARTUEKIN EPE LABURRERA** | - | - |
| **C-4)** | **ONURADUNAK - HARTZEKODUNAK** | **2.040** | **2.800** |
| **C-5)** | **HARTZEKODUN KOMERTZIALAK ETA ORDAINDU BEHARREKO BESTE KONTU BATZUK** | **399** | **256** |
| **I.** | **Hornitzaileak** | 147 | - |
| **II.** | **Hornitzaileak, taldeko erakundeak eta elkartuak (9. eta 17.1 oharrak)** | 22 | 83 |
| **III.** | **Hainbat hartzekodun (9. oharra)** | 96 | 75 |
| **IV.** | **Langileak (ordaintzeke dauden beste ordainsari batzuk)** | 54 | 48 |
| **V.** | **Zerga korrontearengatiko pasiboak** | - | - |
| **VI.** | **Administrazio publikoekiko beste zor batzuk (14.1 oharra)** | 80 | 50 |
| **VII.** | **Eskariengatik jasotako aurrerakinak** | - | - |
| **C-6)** | **EPE LABURRERAKO PERIODIFIKAZIOAK (8.1 oharra)** | **10** | **40** |
| | **ONDARE GARBIAREN ETA PASIBOAREN GUZTIZKOA** | **1.892.622** | **1.790.061** |

(*) Soilik eta esklusiboki konparazioa egiteko barnean hartu da

Erantsitako Memorian deskribatutako 1etik 19ra bitarteko oharrak eta I. eta II. eranskinak 2019ko abenduaren 31ko balantzean bilduta daude.

**Fundación Bancaria Kutxa – Kutxa Banku Fundazioa eta Mendeko Sozietateak (Talde Kontsolidatua)**

**2019ko ETA 2018ko EKITALDIETAKO EMAITZA-KONTU KONTSOLIDATUAK (*)**

(Milako euro)

| | | (Zorra)/Hartzekoa | |
|---|---|---|---|
| | | 2019 | 2018 (*) |
| A. | EKITALDIKO SOBERAKINA | | |
| I. | **Jarduera propioaren diru sarrerak** | **321** | **152** |
| | a) Elkartu eta afiliatuen kuotak | - | - |
| | b) Erabiltzaileen ekarpenak | - | - |
| | c) Sustapenen, babesleen eta kolaborazioen diru-sarrerak | - | - |
| | d) Ekitaldiko soberakinari egotzitako dirulaguntzak | - | - |
| | e) Ekitaldiko soberakinari egotzitako dohaintza eta legatuak | - | - |
| | f) Laguntza eta esleipenen itzulera (7.1 eta 15.1 oharrak) | 321 | 152 |
| II. | **Laguntzen eta bestelakoen ondoriozko gastuak** | **(17.259)** | **(19.729)** |
| | a) Laguntza monetarioak (15.1 oharra) | (16.531) | (18.832) |
| | b) Laguntza ez-monetarioak | (682) | (865) |
| | c) Kolaborazioengatiko gastuak eta gobernu-organoarenak (17.2 oharra) | (46) | (32) |
| | d) Dirulaguntza, dohaintza eta legatuen itzulketa | - | - |
| III. | **Produktu amaituen eta fabrikatzen ari direnen izakinen aldakuntza** | - | - |
| IV. | **Erakundeak bere aktiborako egindako lanak** | - | - |
| V. | **Zuzkidurak** | **(3)** | - |
| VI. | **Jardueraren beste diru-sarrera batzuk (7. oharra)** | **245** | **70** |
| VII. | **Langile-gastuak** | **(661)** | **(475)** |
| | a) Soldatak, lansariak eta asimilatuak | (549) | (399) |
| | b) Karga sozialak | (112) | (76) |
| | c) Hornidurak | - | - |
| VIII. | **Jardueraren beste gastu batzuk (15.3 oharra)** | **(632)** | **(501)** |
| | a) Kanpoko zerbitzuak | (468) | (331) |
| | b) Tributuak | (82) | (117) |
| | c) Zuzkiduren galerak, narriadura eta aldakuntza eragiketa komertzialengatik | - | - |
| | d) Kudeaketa korronteko beste gastu batzuk | (82) | (53) |
| IX. | **Ibilgetuaren amortizazioa (6. eta 7. oharrak)** | **(225)** | **(111)** |
| X. | **Ekitaldiko soberakinera eskualdatutako kapitaleko dirulaguntza, dohaintza eta legatuak** | - | - |
| XI. | **Gehiegizko hornidurak** | - | - |
| XII. | **Ibilgetuaren besterentzeengatiko narriadura eta emaitza (7. oharra)** | **192** | - |
| A.1) | **JARDUERAREN SOBERAKINA** | **(18.022)** | **(20.594)** |
| XIII. | **Diru-sarrera finantzarioak** | **2.354** | **2.330** |
| | a) Ondare-tresnetako partaidetzenak (15.2 oharra) | 2.354 | 2.330 |
| | a.1) Taldeko erakundeetan eta erakunde elkartuetan | - | - |
| | a.2) Hirugarrenetan | 2.354 | 2.330 |
| | b) Balio negoziagarrienak eta beste finantza-tresna batzuenak | - | - |
| | b.1) Taldeko erakundeenak eta erakunde elkartuenak | - | - |
| | b.2) Hirugarrenenak | - | - |
| XIV. | **Finantza-gastuak (10. oharra)** | **(45)** | **(37)** |
| XV. | **Arrazoizko balioaren aldakuntzak finantza-tresnetan** | - | - |
| XVI. | **Truke-diferentziak** | - | - |
| XVII. | **Finantza-tresnen besterentzeengatiko narriadura eta emaitza (8.1 eta 8.2 oharra)** | **(3.405)** | **(259)** |
| XVIII. | **Baliokidetzan jarritako sozietateen mozkinetan/(galeretan) parte hartzea (8.1 oharra)** | **109.025** | **101.726** |
| A.2) | **FINANTZA-ERAGIKETEN SOBERAKINA** | **107.929** | **103.759** |
| A.3) | **ZERGEN AURREKO SOBERAKINA** | **89.907** | **83.165** |
| XVIII. | **Mozkinen gaineko zerga (14.2 oharra)** | **5.124** | **5.890** |
| A.4) | **EKITALDIKO SOBERAKINEAN JASOTAKO ONDARE GARBIAREN ALDAKUNTZA** | **95.031** | **89.055** |

(*) Soilik eta esklusiboki konparazioa egiteko barnean hartu da

Erantsitako Memorian deskribatutako 1etik 19ra bitarteko oharrak eta I. eta II. eranskinak 2019ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion emaitza-kontu kontsolidatuan bilduta daude.

**Fundación Bancaria Kutxa – Kutxa Banku Fundazioa eta Mendeko Sozietateak (Talde Kontsolidatua) 2019ko ETA 2018ko EKITALDIETAKO EMAITZA-KONTUA (*) JARRAIPENA**

(Milako euro)

| | | (Zorra)/Hartzekoa | |
|---|---|---|---|
| | | 2019 | 2018 (*) |
| B) | ZUZENEAN ONDARE GARBIARI EGOTZITAKO DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK | | |
| I. | Saltzeko erabilgarri dauden finantza-aktiboak (8.2 oharra) | 3.680 | 1.385 |
| II. | Eskudiru-fluxuen estaldura-eragiketak | - | - |
| III. | Jasotako dirulaguntzak | - | - |
| IV. | Jasotako dohaintza eta legatuak | - | - |
| V. | Irabazi eta galera aktuarialak eta beste doikuntza batzuk | - | - |
| VI. | Zerga-eragina | (921) | (364) |
| B.1) | ONDARE GARBIAREN ALDAKUNTZA, ONDARE GARBIAN ZUZENEAN JASOTAKO DIRU-SARRERA ETA GASTUENGATIK | **2.759** | **1.021** |
| | | | |
| C. | EKITALDIKO SOBERAKINAREN BIRSAILKAPENAK | | |
| I. | Saltzeko erabilgarri dauden finantza-aktiboak | - | - |
| II. | Eskudiru-fluxuen estaldura-eragiketak | - | - |
| III. | Jasotako dirulaguntzak | - | - |
| IV. | Jasotako dohaintza eta legatuak | - | - |
| V. | Zerga-eragina | - | - |
| C.1) | ONDARE GARBIAREN ALDAKUNTZA, EKITALDIKO SOBERAKINAREN BIRSAILKAPENENEGATIK | - | - |
| | | | |
| D. | ONDARE GARBIAREN ALDAKUNTZA, ONDARE GARBIAN ZUZENEAN EGOTZITAKO DIRU-SARRERA ETA GASTUENGATIK (B.1 + C.1) | **2.759** | **1.021** |
| | | | |
| E. | IRIZPIDEA ALDATZEAGATIKO DOIKUNTZAK | - | - |
| | | | |
| F. | ERROREENGATIKO DOIKUNTZAK (2.6 oharra) | - | **(28.809)** |
| | | | |
| G. | ALDAKUNTZAK FUNDAZIO-HORNIDURAN EDO GIZARTE-FUNTSEAN | - | - |
| | | | |
| H. | BESTE ALDAKUNTZA BATZUK | **104** | - |
| | | | |
| I. | ONDARE GARBIAREN ALDAKUNTZA EKITALDIAN, GUZTIZKO EMAITZA (A.4 + D + E + F + G +H) | **97.894** | **61.267** |

(*) Soilik eta esklusiboki konparazioa egiteko barnean hartu da

Erantsitako Memorian deskribatutako 1etik 19ra bitarteko oharrak eta I. eta II. eranskinak 2019ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion emaitza-kontu kontsolidatuan bilduta daude.

**Fundación Bancaria Kutxa – Kutxa Banku Fundazioa eta Mendeko Sozietateak (Talde Kontsolidatua) 2019 ETA 2018**
**EKITALDIETAKO (*) ONDARE GARBI KONTSOLIDATUAN IZANDAKO ALDAKETEN EGOERA ORRIAK**
(Milako euro)

| | Harpidetutako kapitala | Aurreko ekitaldietako erreserbak eta emaitzak | Erreserbak sozietae kontsolidatuetan s | Erreserbak baliokidetzan jarritako sozietateetan | Sozietate Nagusiari esleitutako ekitaldiaren emaitza | Balioa aldatzeagatiko doikuntzak | Jasotako dirulaguntze, dohaintza eta legatuak | Kanpo-bazkideak | Guztizkoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **SALDOA 2019ko ABENDUAREN 31n** | **30** | **1.638.047** | **(1.489)** | **60.006** | **89.055** | **936** | **-** | **-** | **1.786.585** |
| Errore-zuzenketaren eraginak | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Kontabilitate-politiketan egindako aldaketen eraginak | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| **SALDO DOITUA 2019ko URTARRILAREN 1ean** | **30** | **1.638.047** | **(1.489)** | **60.006** | **89.055** | **936** | **-** | **-** | **1.786.585** |
| **Jasotako sarrera eta gastu kontsolidatuak guztira** | - | - | - | - | **95.031** | **2.759** | - | - | **97.790** |
| **Eragiketak akziodunekin** | - | **42.536** | **(3.160)** | **54.085** | **(89.055)** | - | - | - | **4.406** |
| Kapital-handitzeak (murrizketak) | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Pasibo finantzarioak ondare garbi bihurtzea | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Emaitzaren banaketa | - | 42.536 | (3.160) | 49.679 | (89.055) | - | - | - | - |
| Kanpoko bazkideen partizipazioen erosketak (salmentak) | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Beste eragiketa batzuk bazkideekin edo jabeekin | - | - | - | 4.406 | - | - | - | - | 4.406 |
| **Ondare garbiaren beste aldaketa batzuk** | - | **8** | - | **96** | - | - | - | - | **104** |
| **2019ko EKITALDIKO AMAIERAKO SALDOA** | **30** | **1.680.591** | **(4.649)** | **114.187** | **95.031** | **3.695** | **-** | **-** | **1.888.884** |

| | Harpidetutako kapitala | Aurreko ekitaldietako erreserbak eta emaitzak | Erreserbak sozietate kontsolidatuetan | Erreserbak baliokidetzan jarritako sozietateetan | Sozietate Nagusiari esleitutako ekitaldiaren emaitza | Balioa aldatzeagatiko doikuntzak | Jasotako dirulaguntze, dohaintza eta legatuak | Kanpo-bazkideak | Guztizkoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **SALDOA 2018ko URTARRILAREN 1ean** | **30** | **1.607.637** | **(1.482)** | **37.921** | **77.882** | **(85)** | **-** | **-** | **1.721.903** |
| Errore-zuzenketaren eraginak | - | - | - | **(28.809)** | - | - | - | - | **(28.809)** |
| Kontabilitate-politiketan egindako aldaketen eraginak | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| **SALDO DOITUA 2018ko URTARRILAREN 1ean** | **30** | **1.607.637** | **(1.482)** | **9.112** | **77.882** | **(85)** | **-** | **-** | **1.693.094** |
| **Jasotako sarrera eta gastu kontsolidatuak guztira** | - | - | - | - | **89.055** | **1.021** | - | - | **90.076** |
| **Eragiketak akziodunekin** | - | **30.410** | **(7)** | **50.894** | **(77.882)** | - | - | - | **3.415** |
| Kapital-handitzeak (murrizketak) | - | | - | - | - | - | - | - | - |
| Pasibo finantzarioak ondare garbi bihurtzea | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Emaitzaren banaketa | - | 30.410 | (7) | 47.479 | (77.882) | - | - | - | - |
| Kanpoko bazkideen partizipazioen erosketak (salmentak) | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Beste eragiketa batzuk bazkideekin edo jabeekin | - | - | - | 3.415 | - | - | - | - | 3.415 |
| **Ondare garbiaren beste aldaketa batzuk** | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| **2018ko EKITALDIKO AMAIERAKO SALDOA** | **30** | **1.638.047** | **(1.489)** | **60.006** | **89.055** | **936** | **-** | **-** | **1.786.585** |

Erantsitako Memorian deskribatutako 1etik 20ra bitarteko oharrak eta I.etik IV.era arteko eranskinak 2019ko ekitaldiari dagokion ondare garbi kontsolidatuko aldaketen guztizko egoera-orrian bilduta daude.

**Fundación Bancaria Kutxa – Kutxa Banku Fundazioa eta Mendeko Sozietateak (Talde Kontsolidatua) 2019 ETA 2018KO ABENDUAREN 31N**

**AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIEI DAGOZKIEN ESKUDIRU-FLUXU KONTSOLIDATUEN EGOERA-ORRIAK**

(Milako euro)

| | Memoriaren oharrak | 2019 | 2018 (*) |
|---|---|---|---|
| **USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK (I)** | | **38.689** | **35.925** |
| **Ekitaldiko soberakina zergen aurretik** | | **89.907** | **83.165** |
| **Emaitzaren doikuntzak** | | **(108.138)** | **(102.935)** |
| Ibilgetuaren amortizazioa (+) | 6. eta 7. oharrak | 225 | 111 |
| Ibilgetu-lagapenaren ondoriozko zuzenketak (+) | 7.1 oharra | 79 | 865 |
| Narriaduragatiko balioespen-zuzenketak (+/-) | 8.1 eta 8.2 oharra | 3.405 | 259 |
| Dirulaguntza, dohaintza eta legatuen egoztea (-) | | - | - |
| Ibilgetuaren baja eta besterentzeen ondoriozko emaitzak (+/-) | 7.1 oharra | (192) | - |
| Finantza-tresnen baja eta besterentzeen ondoriozko emaitzak (+/-) | | - | - |
| Diru-sarrera finantzarioak (-) | 15.2 oharra | (2.354) | (2.330) |
| Finantza-gastuak (+) | 10 oharra | 45 | 37 |
| Beste diru-sarrera eta gastu batzuk (+/-) | 15.1 oharra | (321) | (152) |
| Baliokidetzan jarritako sozietateen galeretan/(mozkinetan) parte hartzea, dibidenduetatik garbi (8.1 oharra) | | - | - |
| | 8.1 oharra | (109.025) | (101.726) |
| **Aldaketak kapital korrontean** | | **(614)** | **1.356** |
| Zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk (+/-) | | 45 | (4) |
| Beste aktibo korronte batzuk (+/-) | | - | - |
| Hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk (+/-) | | (619) | 1.360 |
| Beste pasibo korronte batzuk (+/-) | | (30) | - |
| Beste aktibo eta pasibo ez-korronte batzuk (+/-) | | (10) | - |
| **Ustiapen-jardueren beste eskudiru-fluxu batzuk** | | **57.534** | **54.339** |
| Interesen ordainketak (-) | 10. oharra | (45) | (37) |
| Dibidenduen kobrantzak (+) | 15.2 oharra | 57.579 | 54.376 |
| Interesen kobrantzak (+) | | - | - |
| Mozkinen gaineko zergarengatiko kobrantzak (ordainketak) (+/-) | | - | - |
| **INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK (II)** | | **(894)** | **(553)** |
| **Inbertsioengatiko ordainketak (-)** | | **(1.288)** | **(553)** |
| Taldeko erakundeetan eta elkartuetan egindako inbertsioak | 8.1 oharra | - | (212) |
| Hirugarrenetan egindako inbertsioak | 8.2 oharra | (1.000) | (153) |
| Ibilgetu ukiezina | | - | |
| Ibilgetu materiala | 7. oharra | (288) | (188) |
| **Desinbertsioengatiko kobrantzak (+)** | | **394** | **-** |
| Higiezinetako inbertsioak | | 255 | - |
| Salmentarako mantendutako aktibo ez-korronteak | | 139 | - |
| **FINANTZIAZIO-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK (III)** | | **3** | **-** |
| Taldeko erakundeekiko eta erakunde elkartuekiko zorrak (+) | 10. oharra | 3 | - |
| **KANBIO-TASEN ALDAKETEN ERAGINA (IV)** | | **-** | **-** |
| **ESKUDIRUAREN EDO BALIOKIDEEN (I+II+III+IV) IGOERA / BEHERAPEN GARBIA** | | **37.798** | **35.372** |
| **Eskudirua edo baliokideak ekitaldiaren hasieran** | | 48.098 | 12.726 |
| **Eskudirua edo baliokideak ekitaldiaren amaieran** | | 85.896 | 48.098 |

(*) Soilik eta esklusiboki konparazioa egiteko barnean hartu da

Erantsitako Memorian deskribatutako 1etik 19ra bitarteko oharrak eta I. eta II. eranskinak 2019ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion emaitza-kontu kontsolidatuan bilduta daude.

Deloitte.

Deloitte, S.L.
Ercilla, 24
48011 Bilbao
España

Tel: 34 944 44 70 00
www.deloitte .es

# URTEKO KONTU KONTSOLIDATUEN AUDITORIA-TXOSTENA, AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EGINA

Fundación Bancaria Kutxa - Kutxa Banku Fundazioaren Patronatuari:

## Urteko kontu kontsolidatuei buruzko txostena

### Iritzia

Fundación Bancaria Kutxa - Kutxa Banku Fundazioaren (Erakunde Nagusia) eta haren mendeko sozietateen (Taldea) urteko kontu kontsolidatuak auditatu ditugu, eta 2019ko abenduaren 31ko balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbiko aldaketen egoera-orria, eskudiru-fluxuen egoera-orria eta memoria, guztiak ere kontsolidatuak, eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkionak hartzen dituzte barnean.

Gure ustez, erantsitako urteko kontu kontsolidatuek, alderdi esanguratsu guztiei dagokienez, Taldearen 2019ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza-egoeraren eta haren emaitzen eta eskudiru-fluxuen irudi leiala adierazten dute, guztiak kontsolidatuta egonik, eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkionak, aplikatzekoa den finantza-informazioko arau-esparruaren arabera (Memoria kontsolidatuaren 2.1 oharrean identifikatzen dena) eta, bereziki, bertan bildutako kontabilitate-printzipio eta kontabilitate-irizpideen arabera.

### Iritziaren oinarria

Gure auditoria, Espainian indarrean dagoen kontu-auditoriako jardueraren araudi erregulatzailea kontuan izanik egin dugu. Arau horien arabera guk ditugun erantzukizunak gure txostenaren *Auditorearen erantzukizunak urteko kontu kontsolidatuen auditoriari dagokionez* atalean deskribatzen dira aurrerago.

Taldearekiko independenteak gara, kontu-auditoriako jardueraren araudi erregulatzaileak eskatzen duenaren arabera Espainian urteko kontu kontsolidatuen gure auditoriari aplikatzekoak diren etika-errekerimenduekin, baita independentzia-errekerimenduekin ere, bat etorriz. Ildo horretan, ez dugu kontu-auditoriaz bestelako zerbitzurik egin, eta aipatu araudi erregulatzailean ezarritakoaren arabera beharrezkoa den independentzian eragina izan duten eta independentzia hori arriskuan jartzeko moduko egoerarik edo gertakaririk ez da izan.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia ematen du gure iritzirako.

### Auditoriaren funtsezko gaiak

Auditoriaren funtsezko gaiak, gure iritzi profesionalaren arabera egungo aldiko urteko kontu kontsolidatuen gure auditorian garrantzi handienekoak izan diren gaiak dira. Urteko kontu kontsolidatuen gure auditoriaren testuinguruan gai horiek elkarrekin tratatu dira, eta ez dugu banandutako iritzirik ematen gai horiei buruz.

Deloitte SL Madrilgo Merkataritza Erregistroan inskribatua, 13.650 liburukia, 8 atala, 188. folioa, M-54414 orria, 96. inskripzioa
IFK.: B-79104469. Helbide soziala: Plaza Pablo Ruiz Picasso, 1, Torre Picasso, 28020, Madrid.

## Finantza Inbertsioen zorroaren eta Taldeko Erakundeetako edo Elkartuetako Inbertsioen zorroaren balorazioa

| Deskribapena | Auditorian aplikatutako prozedurak |
|---|---|
| Taldeko Erakundeetako eta Elkartuetako Inbertsioetako eta Inbertsio Finantzarioetako zorroetan gauzatuta du bere ondarea Fundazioak, eta zorro horiek dira Fundazioak 2019ko abenduaren 31ko balantzearen ia aktibo guztia.<br><br>Erantsitako urteko kontu kontsolidatuei dagokienez zorro horiek duten garrantzia kontuan izanda, balorazioa gure auditoriarako funtsezko gai gisa identifikatu da, Taldeko Erakundeetako eta Elkartuetako Inbertsioen eta Finantza Inbertsioen narriaduragatiko galera posibleen estimazioa barne. | Finantza Inbertsioen eta Taldeko Erakundeetako eta Elkartuetako Inbertsioen zorroen balorazioa egiteko baliatu ditugun auditoria-prozeduren artean hainbat prozedura garrantzitsu daude, adibidez gordailuzainarekin edo kontrapartearekin posizioak berrestea, finantza-tresnaren izaeraren arabera, eta beste hainbat prozedura garrantzitsu hautespen-oinarrian, finantza-inbertsioen zorroaren balorazio-arriskuari erantzuna ematera bideratuak, adibidez prezioak kanpoko informazioarekin kontrastatzea.<br><br>Era berean, Taldeko Erakundeetako eta Elkartuetako Inbertsioen balorazio-irizpideak ebaluatu ditugu, baita inbertsio guztientzako 2019ko ekitaldia ixteko behar bezala aplikatzea ere.<br><br>Azkenik, finantza-inbertsioen zorroaren eta Taldeko Erakundeetako eta Elkartuetako Inbertsioen aktiboei dagokienez urteko kontu kontsolidatuetan emandako informazio-banakapenak (ikus 8. oharra) aplikatzekoa den finantza-informazioaren arau-esparruak eskatzen dituenekin bat ote datozen ebaluatu dugu. |

## Fundazio-xedeei lotutako gastuen onarpena (sailkapena eta sortzapena)

| Deskribapena | Auditorian aplikatutako prozedurak |
|---|---|
| Memoriaren 16. oharrean xehatzen den bezala, 2019ko ekitaldian Taldeak 17.752 milako euro erregistratu ditu (hau da, Fundazioaren gastuen guztizkoaren % 91) fundazio-xedeei lotutako jarduerei egotzitako gastu gisa.<br><br>Zenbateko horretatik, oso garrantzitsua da gastuak euren izaeraren arabera zuzen sailkatzea, baita Erakunde Nagusiaren | zuzendaritzak jarduerei egotzitako gastuen eta jarduerei egotzi gabeko gastuen artean egiten duen esleipena ere, aplikatu behar den kontabilitate- eta zerga-araudiari jarraikiz.<br><br>Bestalde, gastu horien sortzapenak kontuan izan behar ditu Taldeak onuradunekin edo hornitzaileekin/hartzekodunekin sinatutako hitzarmenak edo kontratuak, zuzendaritzak ekitaldiaren amaieran aldi horretan sortutako gastuen aurreikuspen bat eta ordaindu beharreko dagokion kontuaren kalkulua eginez. |

Erantsitako kontsolidatutako urteko kontuei dagokienez fundazio-xedeei lotutako jarduerei egotzitako gastu horien garrantzia kontuan izanik, uste dugu gai hori funtsezkoa dela auditoriarako.

Gure auditoria-prozedurek barnean hartu dituzte, besteak beste, fundazio-xedeei lotutako jarduerei egotzitako gastuen onarpen-prozesuari lotutako arriskuak arintzen dituzten kontrol azpimarragarrien diseinu eta ezarpenaren berrikuspena, baita kontrol horiek eraginkorrak direla egiaztatzeko probak ere. Bereziki, aplikatzekoa den esparruaren arabera zuzen sailkatzeko eta behar bezala onartzeko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko Taldearen zuzendaritzak ikuskatzen dituenak, esparruaren arabera. Horrekin batera, eta hitzarmenen edo kontratuen lagin batentzat, hautespen-oinarrietan lortua izanik, hainbat prozedura garrantzitsu egin ditugu egotzitako gastuen onarpen-irizpidea aipatu hitzarmen edo kontratuen baldintzekin bat datozela baliozkotzeko, hala dagokion gastu-epigrafean sailkatzeari nola bakoitzaren zenbatekoari dagokienez. Ildo horretan, fundazio-xedeei lotutako jarduerei egotzitako gastuen zifrak baliozkotzera bideratutako probak egin ditugu, eta modu osagarrian, ondorengo gertakarien berrikuspenean egiaztatu dugu Taldeak erregistratutako zenbatekoak ekitaldiaren itxieraren ondoren kontzeptu horiengatik erregistratutako karguekin bat datozela.

Azkenik, gaineratzen diren urteko kontu kontsolidatuen 15.1, 15.3 eta 16. oharretan gai horri lotuta bildu diren informazio-banakapenak aplikatzekoa den kontabilitate-araudiak eskatzen dituztenerako egokiak ote diren ebaluatu dugu.

## Erakunde Nagusiaren zuzendari nagusiaren eta auditoria-batzordearen erantzukizuna urteko kontu kontsolidatuei dagokienez

Erakunde Nagusiaren zuzendari nagusiaren erantzukizuna da gaineratzen diren urteko kontu kontsolidatuak formulatzea, Taldearen ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitza kontsolidatuen irudi leiala adieraz dezaten, Espainian Taldeari aplikatu beharreko finantza-informazioko araudi-esparruarekin eta urteko kontu kontsolidatuak iruzurraren edo errakuntzaren ondoriozko akats materialik gabe prestatzeko beharrezkotzat jotzen duen barne-kontrolarekin bat etorriz.

Urteko kontu kontsolidatuen prestakuntzan, Erakunde Nagusiaren zuzendari nagusiaren erantzukizuna da Taldeak funtzionatzen ari den enpresa gisa jarraitzeko duen gaitasuna balioestea, dagokionean funtzionatzen ari den enpresari lotutako gaiak adieraziz eta funtzionatzen ari den enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiliz aipatu zuzendari nagusiak Taldea likidatzeko edota eragiketak bertan behera uzteko asmoa duenean salbu, edota beste alternatiba errealistarik ez dagoenean.

Erakunde Nagusien auditoria-batzordearen erantzukizuna urteko kontu kontsolidatuen lantze- eta aurkezpen-prozesua ikuskatzea da.

## Auditorearen erantzukizunak urteko kontu kontsolidatuen auditoriari dagokionez

Gure helburuak honako hauek dira: urteko kontu kontsolidatuek beren osotasunean iruzurraren edo errakuntzaren ondoriozko akats materialik ez dutela segurtasuna nahiko handia lortzea, eta gure iritzia biltzen duen auditoria-txosten bat jaulkitzea.

Segurtasun nahiko handia segurtasun-maila handia da, baina ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontu-auditoriaren jardueraren araudi erregulatzailearen arabera egindako auditoria batek akats material bat dagoenean akats hori beti detektatuko duenik. Akatsak iruzurraren edo errakuntzaren ondoriozkoak izan daitezke, eta materialtzat jotzen dira baldin eta, indibidualki edo erantsita, modu arrazoigarrian aurreikus badaiteke erabiltzaileek urteko kontu kontsolidatuetan oinarrituz hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan eragina izango dutela.

Auditoria-txosten honen I. Eranskinean, urteko kontu kontsolidatuen auditoriari dagokionez ditugun erantzukizunen deskribapen xehatuagoa biltzen da. 6. eta 7. orrialdeetan dagoen deskribapen hori gure auditoria-txostenaren zati da.

## Legezko eta erregelamenduzko beste errekerimendu batzuei buruzko txostena

## Txosten gehigarria Erakunde Nagusiaren auditoria-batzordearentzat

Txosten honetan adierazitako iritzia, Erakunde Nagusiaren auditoria-batzordearentzat 2020ko apirilaren 22an egin genuen txosten gehigarrian adierazitakoarekin bat dator.

## Kontratazio-aldia

Erakunde Nagusiaren Patronatuak 2019ko urriaren 23an egindako bileran auditore izendatu gintuen urtebeterako, 2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitalditik zenbatzen hasita.

Lehendik, Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián - Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxaren Batzar Orokorraren erabakiz izendatu gintuzten 3 urteko aldirako, eta kontu-auditoriaren lana etengabe egin dugu 2012ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiaz geroztik, eta beraz, 2016ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiaz geroztik ere, urte horretan Erakunde Nagusia Interes Publikoko Erakunde bihurtu baitzen.

DELOITTE, S.L.
Inscrita en el R.O.A.C. nº S0692

Rafael Orti Baquerizo
Inscrito en el R.O.A.C. n° 15998

22 de abril de 2020

J\ UDITOR::S
-y T TO DE (EN ..:>AES ,URADOS
.JE CUENTAS DE EsPAtiA

DELOITTE S.L.

2020 Núm. 03/20/01691
SELLO CORPORATIVO 95,00 EUR

Informe di!-auditoria de cuentas suJt.O a la normativa de auditoria de cuentas española o internacional

# Gure auditoria-txostenaren I. Eranskina

Gure auditoria-txostenean barne hartutakoaren gehigarri gisa, urteko kontu kontsolidatuen auditoriarekiko gure erantzukizunak ere biltzen ditugu Eranskin honetan.

## Auditorearen erantzukizunak urteko kontu kontsolidatuen auditoriari dagokionez

Espainian indarrean dagoen kontu-auditoriaren jardueraren araudi erregulatzailearen araberako auditoria baten zati garenez, gure judizio profesionala aplikatzen dugu eta eszeptizismo profesionalean oinarritutako jarduera bat atxikitzen dugu auditoria osoan. Horrekin batera:

- Iruzurraren edo errakuntzaren ondoriozko urteko kontu kontsolidatuetako akats materialen arriskuak identifikatzen eta balioesten ditugu, auditoria-prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu arrisku horiei erantzuteko eta auditoria-ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzirako oinarri bat emateko. Iruzurraren ondoriozko akats material bat ez detektatzeko arriskua handiagoa da errakuntza baten ondoriozko akats material baten kasuan baino, iruzurrak kolusioa, faltsutzea, nahitaezko omisioak, nahita oker egindako adierazpenak, edo barne-kontrola saihestea inplika baititzake.

- Auditoriarako esanguratsua den barne-kontrolari buruzko ezagutza lortzen dugu zirkunstantzien arabera egokiak diren auditoria-prozedurak diseinatzeko eta ez Taldeko barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi bat adierazteko asmoz.

- Aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak diren ebaluatzen dugu, eta horrekin batera, kontabilitate-estimazioen arrazoigarritasuna eta Erakunde Nagusiaren zuzendari nagusiak jakinarazitako dagokion informazioa.

- Erakunde Nagusiaren zuzendari nagusiak funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiltzea egokia ote den ondorioztatzen dugu eta, lortutako auditoria-ebidentzian oinarrituta, ondorioztatzen dugu ea ziurgabetasun materialik ote dagoen funtzionamenduan dagoen enpresa gisa jarraitzeko Taldearen gaitasunari buruzko zalantza esanguratsuak sor ditzaketen gertakari edo baldintzekin lotuta. Ziurgabetasun material bat dagoela ondorioztatzen badugu, urteko kontu kontsolidatu horietan jakinarazitako dagokion informazioari buruzko gure txostenean nabarmendu beharko dugu edo, jakinarazte horiek egokiak ez badira, aldatutako iritzi bat adierazi. Gure auditoria-txostenetik gaurko egunera arte lortutako auditoria-ebidentzian oinarritzen dira gure ondorioak. Haatik, etorkizuneko gertakari edo baldintzak Taldeak funtzionamenduan dagoen enpresa bat izateari uzteko kausa izan daiteke.

- Urteko kontu kontsolidatuen aurkezpen globala, egitura eta edukia ebaluatzen dugu, jakinarazitako informazioa barne, eta urteko kontu kontsolidatuek azpiko transakzio edo gertakariak irudi leial bat adieraztea lortzeko moduak irudikatzen ote dituzten.

- Ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu erakundeen edo Talde barruko enpresa-jardueren finantza-informazioarekin lotuta urteko kontu kontsolidatuei buruzko iritzi bat adierazteko. Taldeko auditoria zuzentzearen, gainbegiratzearen eta egitearen arduradun gara. Gure auditoria-iritziaren arduradun bakarrak gara.

Erakunde Nagusiaren auditoria-batzordearekin harremanetan gaude hainbat gairi dagokionez, hala nola planifikatutako auditoriaren hedadura eta auditoria hori egiteko unea eta auditoriaren aurkikuntza esanguratsuak, eta horrekin batera auditorian zehar identifikatzen dugun barne-kontroleko edozein akats esanguratsu.

Era berean, Erakunde Nagusiaren auditoria-batzordeari emango diogu deklarazio bat egiaztatuz etika-eskakizun aplikagarriak bete ditugula, independentzia-eskakizunak barne, eta batzordearekin harremanetan jarri gara arrazoibidean gure independentziarako mehatxu bat izan daitezkeen gaiei buruz, eta, kasuan kasu, dagozkion salbuespenei buruz.

Erakunde Nagusiaren auditoria-batzordeari jakinarazi zaizkion gaien artean, egungo aldiko urteko kontu kontsolidatuen auditorian garrantzi handiena izan dutenak zehazten ditugu, eta, ondorioz, auditoriaren funtsezko gaiak direnak.

Gure auditoria txostenean jakinarazten ditugu gai horiek, salbu eta legezko edo arauzko xedapenek gai hori publikoki jakinaraztea debekatzen badute.

## Fundación Bancaria Kutxa – Kutxa Banku Fundazioa eta Mendeko Sozietateak (Talde Kontsolidatua)

2019ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion memoria kontsolidatua

### 1. Taldearen jarduera

#### *1.1 Taldearen izaera*

Fundación Bancaria Kutxa – Kutxa Banku Fundazioa (hemendik aurrera "Kutxa", "Fundazioa" edo "Erakunde Nagusia" ) 2014ko urriaren 31n eratu zen Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa (hemendik aurrera, "Aurrezki Kutxa") Banku Fundazio bihurtu zelako, 30 milako euroko hasierako zuzkidura batekin (ikus 11. oharra), kontu korrontean diru-ekarpen bat eginez. Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua da, nortasun juridiko independentea eta ondare propioa duena, EAEko Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2014ko abenduaren 22ko Aginduaren bitartez onetsia eta EAEko Fundazioen Erregistroan F-382 erregistro-zenbakiarekin inskribatua. 2015eko apirilaren 24an Kutxako Patronatuak erabaki zuen helbide soziala lekualdatzea, Garibai kaleko 20.-22. zenbakietatik Mikeletegi Pasealekuko 79.ean kokatutako Arbide Dorreetara, eta horrenbestez, estatutuen 2. artikulua aldatu behar izan zuen. Aldaketa hori publiko egin zen Guadalupe María Inmaculada Adánez García Notario andrearen aurrean 2015eko abenduaren 25ean, haren protokolo-ordenaren 1.757. zenbakiarekin, eta 2016ko irailaren 9an inskribatu zen Euskal Herriko Fundazioen Babeslaritzan. Era berean, 2016ko ekainaren 29an Fundazioaren estatutuak aldatu ziren Guadalupe María Inmaculada Adánez García andrearen aurrean haren 1.135. protokolo-zenbakiarekin sinatutako eskriturari jarraikiz, eta 2016ko irailaren 19an geratu ziren inskribatuta EAEko Fundazioen Erregistroan. Era berean, 2018ko urtarrilaren 31n, patronatuaren erabakiz, berriz ere aldatu ziren Fundazioaren estatutuak, eskritura publikoan formalizatuz 2018ko otsailaren 19an Guadalupe María Inmaculada Adánez García andrearen aurrean haren 337. protokolo-zenbakiarekin sinatutako eskritura publikoan, eta 2018ko irailaren 7an geratu ziren inskribatuta EAEko Fundazioen Erregistroan.

Fundazioa eratu zen aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legean ezarritakoa betez, eta horri jarraikiz Kutxaren Ezohiko Batzar Orokorrak 2014ko urriaren 24an egindako bilkuran erabaki zuen Fundazioa Banku Fundazio bihurtzea. Era berean, Espainiako Bankuaren azaroaren 7ko 6/2015 Zirkularrari jarraikiz, 2018ko maiatzaren 18an Espainiako Bankuaren komunikazio bat jaso zen, Fundazioak bidalitako Kudeaketa protokoloaren berrespenaren jakitun geratu izanaren berri emanez, eta Espainiako Bankuaren Batzorde Betearazleak Finantza Plana onartu zuen 2018ko ekainaren 7an.

Caja de Ahorros y Monte de Piedad Municipal de San Sebastián – Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala eta Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa-Donostiako Aurrezki Kutxa Probintziala fusionatu izanaren emaitza da Kutxa, 1990eko abenduaren 1ean eratua. Delako fusio hori bi Aurrezki Kutxen Ezohiko Batzar Nagusietan onartu zen, 1990. urteko ekainaren 23an.

2012ko ekitaldian, eta 1.2 oharrean deskribatutako Integrazioaren ondorioz, Kutxak Kutxabank SAra banandu zuen bere finantza-negozioa (hemendik aurrera, "Bankua"), eta horregatik harrez geroztik ez du banku-jarduerarik egiten eta ez dauka bulego bat ere.

Kutxa Taldea (hemendik aurrera, Taldea) osatzen duten Erakunde Partaidetuen Taldeko Erakunde Nagusia da Fundazioa. Irailaren 17ko 1159/2010 Errege Dekretuak onartutako Urteko Kontu Kontsolidatuak formulatzeko Arauen 7. artikulua aldatu zuen abenduaren 2ko 602/2016 Errege Dekretuak. Izan ere, tamainagatik kontsolidatzeko betebeharraren dispentsarako arau horren 8. artikuluan ezarritako mugak aplikatu ezin daitezkeela ezarri du, baldin eta Taldeko erakunde bat interes publikoko erakundea bada, Kontuen Auditoriari buruzko uztailaren 20ko 22/2015 Legearen 3.5 artikuluan ezarritako definizioaren arabera. Errege Dekretu horrek 2016ko urtarrilaren 1etik du eragina. Ondorioz, eta 22/2015 Legea indarrean sartu zenetik Fundazioa Interes Publikoko Erakundea denez gero, Fundazioak 2016ko ekitalditik aurrera nahitaez Taldearen urteko kontu kontsolidatuak formulatu behar ditu, eta kontu horietan, hala dagokionean, Mendeko Erakundeetako eta Erakunde Taldeaniztunetako partaidetzak eta Erakunde Elkartuetan egindako inbertsioak bildu behar dira.

### *1.2 Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián – Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa, Bilbao Bizkaia Kutxa, Aurrezki Kutxa eta Bahitetxea, Caja de Ahorros de Vitoria y Álava – Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxa, eta Kutxabank SA integratzea.*

2011ko ekainaren 30ean Kutxako, Bilbao Bizkaia Kutxa, Aurrezki Kutxa eta Bahitetxeko (aurrerantzean, "BBK"), Araba eta Gasteizko Kutxako (aurrerantzean, "Vital Kutxa") eta Bankuko Administrazio Kontseiluek integrazio-kontratua onartu zuten kontratu-oinarriko kreditu-erakundeen talde kontsolidagarri bat (Babeseko Sistema Instituzionala edo "SIP"), zeinaren burua bankua izango baitzen, eta, gainera, Kutxak, BBK-k eta Vital Kutxak osatuko luketen (aurrerantzean, "Kutxen" multzoa) Talde berria, haren eta Bankuaren gobernuak eta Taldearen egonkortasun-mekanismoak eratzeko elementuak arautzen zituen kontratu horrek.

Gainera, Kutxen Administrazio Kontseiluek eta Bankuak (azken hori, erakunde onuradun gisa) onartu zituzten, merkataritza-sozietateen egitura-aldaketei buruzko apirilaren 3ko 3/2009 Legearen III. Tituluan eta Hirugarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoa betez, zegozkien banantze-proiektuak, eta, proiektu horien arabera, Kutxaren, BBKren eta Vital Kutxaren finantza-jarduerari lotutako aktibo eta pasibo guztiak Bankuaren esku utzi behar ziren, une horretatik aurrera Kutxek, Bankuaren bitartez, kreditu-erakunde gisa zuten xedea zeharka garatuko zutelarik.

Banantze horren bitartez, Banandutako Ondarearen batasun ekonomikoa osatzen zuten elementu guztiak eskualdatu ziren ondorengotza unibertsal bidez, hau da Kutxen ondarea osatzen zuten elementu guzti-guztiak eskualdatu ziren, baztertutako Aktibo eta Pasiboak izan ezik, Kutxen finantza-jarduerarekin zuzeneko loturarik ez zutenak eta zegozkien banantze-proiektuetan jasota zeudenak.

Kutxen Batzar Orokorrek eta 2011ko irailaren 23ko eta urriaren 20ko Bankuaren (une hartan, akziodun bakarra) Akziodunen Batzar Nagusiaren bilkurek banantze-proiektu horiek onartu zituzten, baita integrazio-kontratua eta haren ondorengo berritzea ere.

Aurrekoarekin, eta behin administrazio-baimen egokiak lortu ondoren 2011ko abenduaren 22an Kutxak, BBK-k eta Kutxa Vitalek, Bankuarekin batera, Kutxen finantza-negozioak banantzeko eta Kutxabank SAren esku uzteko eskriturak egiletsi zituzten.

Merkataritza-sozietateen egitura-aldaketei buruzko apirilaren 3ko 3/2009 Legearen 31.7. artikuluaren xedeetarako, Kutxen negozioak banantzeko eta Bankuaren esku uzteko ekimena eta, horren ondorioz, Babes Sistema Instituzionala, eraginkorrak dira, 2012ko urtarrilaren 1ean Banantzea Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatu zelako.

Banantzeen erregistroarekin, Kutxen artean sinatutako integrazio-kontratua indarrean hasteko azken ezinbesteko baldintza burutu zen. Horren ondorioz, 2012ko urtarrilaren 1ean, Babes Sistema Instituzionala eratzeko integrazio-kontratua eraginkor bihurtu zen. Sistema horri jarraikiz, Kutxek beren jardueraren zeharkako egikaritza onartu zuten, finantza-negozioak Bankuarentzat bananduta, Bankua, banantzearen erakunde onuraduna izaki, banandutako ondarearen eskubide, akzio, obligazio, erantzukizun eta karga guztietan subrogatu zen. Gainera, Bankuak bere gain hartu zituen Kutxetatik banandutako negozioa ustiatzearekin lotutako giza baliabide eta baliabide material guztiak.

Banandutako Ondarearen truk, Bankuak kapital-gehikuntza gauzatu zuen, 1.981.950 milako euroko gehikuntza guztira, 1.000 euronako balio nominaleko 1.981.950 akzio nominatibori zegokiena, gehi jaulkipen-prima bat, eta horrela Kutxa bakoitzak akzio jaulki berriak jaso zituen Bankuaren kapital sozialaren adierazgarri, bakoitzak banandutako ondarearen balio berberarekin. Jaulkitako akzioak titulu nominatiboen bitartez daude ordezkatuta, zirkulazioan daudenak bezala, guztiak ere klase berekoak izanik eta une horretan daudenen eskubide berberekin.

Kapitala gehitu ostean, Kutxa bakoitzak honako partaidetza hau izango luke Bankuan:

| | Partaidetza (%) |
|---|---|
| Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria-Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa | % 57 |
| Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioa | % 32 |
| Fundación Bancaria Vital-Vital Banku Fundazioa | % 11 |

### *1.3 Integrazio Kontratua eta Babes Sistema Instituzionala (SIP/BSI) azkentzea*

Azkenik, aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legean ezarritakoa betez, Kutxa Vitalen eta BBKren Ohiko Batzar Orokorrek 2014ko ekainaren 30ean egindako bilkuretan eta Kutxaren Ezohiko Batzar orokorrak 2014ko urriaren 24an egindako bilkuran onartu zuten Kutxak Banku Fundazio bihurtzea. Ondoren, Kutxak EAEko Fundazioen Erregistroan inskribatu ziren, Kutxa Vital 2014ko abenduaren 29an, BBK 2014ko azaroaren 24an eta Kutxa 2014ko abenduaren 22an, hurrenez hurren.

Azkendutako hiru Kutxak Fundazioen Erregistroan inskribatzearekin batera, kreditu-erakundeen izaera *de facto* galdu zuten, baita, horren ondorioz, erakunde horiek eratutako Babes Sistema Instituzionala ere, eta Kutxabank azkentzeko arrazoian sartu zen. Ildo horretan, Fundación Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioaren Patronatuak, 2015eko urtarrilaren 23an, eta Caja de Ahorros de Vitoria y Álava-Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxako Patronatuak, 2015eko otsailaren 10ean, hurrenez hurren, aho batez erabaki zuten Babes Sistema Instituzionala eta azkendutako Kutxek eta Kutxabankek sinatutako integrazio-kontratua azkentzea. Gainera, Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioaren Patronatuak, 2015eko martxoaren 17an aho batez erabaki zuen azkendutako Kutxek eta Kutxabankek sinatutako Integrazio Kontratua amaitutzat ematea, horretarako, zehazteke dagoen datan, Kontratu hori Amaitzeko Dokumentua sinatuz, eta, aldi berean, Kutxabank SAko banku-fundazio akziodunen artean "Bazkideen Akordio" berri bat emanez. Azkenik, 2016ko martxoaren 17an, Fundazioak akordio bat sinatu du, 2015eko martxoaren 24an Kutxabank SAk, Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioak eta Vital Banku Fundazioak sinatutako Integrazio Kontratua Amaitzeko dokumentuari espresuki atxikitzeko.

### *1.4 Taldearen jarduera*

Kutxak helburu gisa Gipuzkoako Lurralde Historikoaren garapen ekonomikoa eta soziala izango du, eta bere gizarte-jarduera gauzatu eta garatzera, eta bere ondarea, eta, beraz, Kutxak bere finantza-jarduera transferitu zion banku-erakundearen (Kutxabank, aurrerantzean) kapitalean, bai eta beren helburuen garapenean erositako beste batzuetan duen partaidetza behar bezala kudeatzera bideratuko du bere jarduera nagusia.

Fundazioak hazkunde ekonomikoa sustatuko du Lurraldean, Fundazioaren ustez Gipuzkoako Lurralde Historikoarentzat balio estrategikoa duten konpainietan inbertsioak eginez edota bertan parte hartuz, garapen sozioekonomikoa lortzen lagunduko duten proiektu eta jarduera propioen edo lankidetzan egindakoen bultzada eta mantentze jasangarrira bideratuta egonik.

Fundazioak bultzatu eta garatuko dituen jarduerak, orientazio gisa (izaera esklusibo eta nahitaezkorik gabe), honako eremu hauetan oinarrituko dira: gizarte-laguntza eta gizarteratzea, osasuna, berdintasuna, dibertsitate funtzionalaren eta desgaitasunaren arreta, hezkuntza, euskararen garapena, hizkuntza-bizikidetza, kultura, kirolaren eta haren balioen sustapena, lankidetza, ikerketa zientifikoa, berrikuntza eta garapen teknologikoa, ingurumena eta iraunkortasuna, gazteen eta bazterkeria-arriskuan dauden kolektiboen laneratzea eta, oro har, gizarte-balioen eta garapen pertsonalaren sustapena (elkartasuna, tolerantzia, boluntariotza, kolektiboa denaren ikuspegia eta horri balioa emateko aukera, eta berezitasunaren errespetua).

Fundazioak egikaritzen duen jarduera kontuan izanda, Fundazioak ez du esanguratsuak izan daitezkeen ingurumen-izaerako erantzukizunik, gasturik, aktiborik ezta zuzkidura edo kontingentziarik izan ondarearekiko, finantza-egoerarekiko eta egoera horren emaitzekiko. Hori dela-eta, memoria honetan ez dira urteko kontuen banakapenak biltzen ingurumen-gaiei buruzko informazioarekiko

### *1.5 Taldeko Erakundeen jarduerei buruzko deskribapena*

Merkataritza-taldekoak izan gabe Fundazioaren onuradun izateagatik garrantzitsuen gisa hartutako erakundeak, urteko kontu hauen berri emateko betebeharra betetzeko ondorioetarako, Kutxa Fundazioa, Kutxagestión Zerbitzuak SLU eta Onkologikoa Fundazioa dira.

Erakunde horien jarduera eta 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiei dagozkien aktibo, pasibo, diru-sarrera eta gastu guztien zenbatekoa honako hau da:

<u>Kutxa Fundazioa</u>

Fundazioaren jarduera zehatza honako hau da: Gizarte Jarduera eta Kutxak helburu sozial garbia duten eta irabazi-asmorik ez duten erakundeetan dituen partaidetzak kudeatzea.

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion aktibo, pasibo, diru-sarrera eta gastuen zenbateko osoa honako hau da:

| | 2019 (*) | 2018 |
|---|---|---|
| Aktiboa | 47,942 | 43.254 |
| Pasiboa | 9.860 | 12.499 |
| Diru-sarrerak | 13.578 | 15.421 |
| Gastuak | 11.358 | 13.406 |

*(*) Auditatu gabeko behin-behineko datuak*

2015eko azaroaren 30ean, Kutxa Fundazioaren Patronatuak xurgapen bidezko fusioa onartu zuen Kutxa Fundazioa Fundazio Xurgatzailearen eta Mirabide Fundazioa Fundazio Xurgatuaren artean. Era berean, 2016ko azaroaren 27an, Kutxa Fundazioaren Patronatuak xurgapen bidezko fusioa onartu zuen Kutxa Fundazioa Fundazio Xurgatzailearen eta Mirabide Fundazioa Fundazio Xurgatuaren artean. Bi eragiketak Euskadiko Fundazioen Erregistroan inskribatu ziren 2016ko ekainaren 30ean, eta kontabilitate-eragina dute 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera.

<u>KutxaGestion Zerbitzuak SLU</u>

Erakunde hau 2016. urtean hasi zen lanean, ingurumen- eta zientzia-eremuetan batik bat.

Ingurumen-eremuari dagokionez, Kutxa Ekogunea parkea kudeatzen du sozietateak, zeinak Ingurumen naturalari buruzko jakintza eta zaintza bultzatzen dituen, landa-ingurunean gorde den jakituria tradizionala eta azken belaunaldiko zientzia- eta teknologia-jakintza uztartuz eta ingurumen-prestakuntza eta -hezkuntza sustatuz, belaunaldi berriek mundu jasangarri baten aldeko jardunbiderik onenak naturaltasunez beren gain har ditzaten.

Zientzia-alorrean, berriz, sozietateak Eureka! Zientzia Museoa kudeatzen du, eta zientzia-jakintzaren eta ikerketen zabalkundeaz arduratzen da batez ere.

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion aktibo, pasibo, diru-sarrera eta gastuen zenbateko osoa honako hau da:

| | 2019 (*) | 2018 |
|---|---|---|
| Aktiboa | 7.728 | 7.837 |
| Pasiboa | 1.798 | 2.392 |
| Diru-sarrerak | 4.945 | 4.407 |
| Gastuak | 4.365 | 4.318 |

*(*) Auditatu gabeko behin-behineko datuak*

Fundación Onkologikoa Fundazioa

Fundazio honen jarduera sozietate-xedea herritarren bizi-kalitatearen eta osasunaren hobekuntza sustatzean datza, jatorri onkologikoa duten gaixotasunen prebentzioan, diagnostikoan eta tratamenduan kalitatezko eta espezializatutako zerbitzua emanda.

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion aktibo, pasibo, diru-sarrera eta gastuen zenbateko osoa honako hau da:

| | 2019 (*) | 2018 |
|---|---|---|
| Aktiboa | 36.796 | 38.503 |
| Pasiboa | 2.573 | 3.981 |
| Diru-sarrerak | 31.407 | 33.329 |
| Gastuak | 32.951 | 33.739 |

*(*) Auditatutako datuak*

## 2. Mendeko sozietateak, elkartuak eta taldeaniztunak

### *2.1 Mendeko sozietateak*

Kontsolidazioa egin da integrazio globalaren metodoa aplikatuz mendeko sozietate guztiei, hau da, Taldeak zuzenean edo zeharka bere kontrola egikaritzen duen edo egikaritu dezakeen sozietateei aplikatuz, kontroltzat ulertuz enpresa baten finantza- eta ustiapen-politikak zuzendu ahal izateko ahalmena, haien jardueretatik mozkin ekonomikoak lortzeko. Zirkunstantzia hori, oro har baina ez bakarrik, mendeko sozietatearen boto-eskubideen % 50aren zuzeneko nahiz zeharkako titulartasunaren bidez azaltzen da.

Bazkide minoritarioen mendeko sozietateen ondarean eta emaitzetan duten partaidetza honako hauetan agertzen da: balantze kontsolidatuko "Ondare garbia" epigrafearen barneko "Kanpoko Bazkideak" atalean, eta erantsitako galera-irabazien kontu kontsolidatuko "Kanpoko Bazkideei atxikitako emaitza" atalean, hurrenez hurren.

I. eranskinean kontsolidazio-perimetroaren barnean hartutako mendeko sozietateak xehatzen dira.

### *2.2 Sozietate taldeaniztunak*

Sozietate taldeaniztunak negozio bateratu bat osatzen dutenak eta integrazio proportzionalaren metodoaren bidez kontsolidatzen direnak dira, eta horrek zera dakar, sozietate horien aktibo, pasibo, gastu eta diru-sarreren zati proportzionala finantzetako egoera-orri bateratuetan sartzea, sozietateek Taldean duten partaidetzaren arabera. Negozio bateratutzat jotzen dira beste partaide batzuekin batera kontrolatzen direnean, eta kontrol bateratu hori gertatzen da estatutu- edo kontratu-akordio bat dagoenean eta akordio horren bidez finantza- nahiz eragiketa-jardueren erabaki estrategikoek kontrola partekatzen ari diren alderdien aho bateko adostasuna dutenean.

### *2.3 Sozietate elkartuak*

Sozietate elkartuak baliokidetzan jartzeko metodoaren bidez erregistratzen dira. Sozietate horien kudeaketan eragin garrantzitsua izan ohi da, hau da, partaidetuaren finantza- eta ustiapen-politikako erabakietan esku hartzeko ahalmena, baina kontrola edota kontrol bateratua eduki gabe. Sozietate baten eragin garrantzitsua dagoela esan ohi da partaidetzaren % 20 edo gehiago dagoen

sozietateetan.

Baliokidetzan jartzeko metodoa zera da: balantze kontsolidatuko "Taldeko enpresa eta elkartuetan epe luzerako egindako inbertsioak -Baliokidetzan jarritako partaidetzak" linean sozietate elkartuan edukitako partaidetzari dagokion aktibo garbien eta merkataritza-funtsaren balioa gaineratzea, halakorik balego. Sozietate horietako partaidetzari dagokion ekitaldi bakoitzean lortutako emaitza garbia emaitza-kontu kontsolidatuetan adierazten da, "Baliokidetzan jarritako sozietateen mozkinetan (galeretan) parte hartzea" epigrafean.

II. eranskinean kontsolidazio-perimetroaren barnean hartutako sozietate elkartuak xehatzen dira.

## 3. Urteko kontuak aurkezteko oinarriak

### *3.1 Taldeari aplikatzekoa den finantza-informazioari buruzko arau-esparrua*

Fundazioaren Zuzendari Nagusiak eman du urteko kontu kontsolidatu horien berri, Fundazioari aplikatzekoa den finantza-informazioari buruzko arau-esparruari jarraikiz, azken hori honako hauetan ezarrita dagoelarik:

a) Merkataritza Kodea eta merkataritza-alorreko gainerako legeria.

b) 26/2013 Legea, abenduaren 27koa, aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzkoa, eta, haren osagarri, EAEko Fundazioei buruzko 2016ko ekainaren 2ko Eusko Legebiltzarraren 9/2016 Legea, Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Foru Dekretua eta EAEko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua.

c) 1159/2010 Errege Dekretuak onartutako Urteko Kontu Kontsolidatuen Formulaziorako Arauak.

d) 1514/2007 Errege Dekretuak onartutako Kontabilitate Plan Orokorra eta haren Egokitzapen sektorialak, bereziki, Kontabilitate Plan Orokorra irabazi-asmorik gabeko erakundeen sektorera egokitzea, urriaren 24ko 1491/2011 Errege Dekretuak onartu zuena, eta, zehazki, 2013ko martxoaren 26ko ebazpena, Kontabilitateko eta Kontu Auditoriako Institutuarena, irabazi-asmorik gabeko erakundeen Kontabilitate Plana onartzen duena.

e) 7/2016 Zirkularra, azaroaren 29koa, Espainiako Bankuarena, banku-fundazioek ezarri beharreko kontabilitate-espezifikotasunak garatzen dituena. Horrek aldatzen ditu, batetik, kreditu-erakundeentzako abenduaren 22ko 4/2004 Zirkularra, finantza-informazio publiko eta erreserbatuko arauei eta finantzetako egoera-orrien ereduei buruzkoa, eta, bestetik, Arriskuen Informazio Zentralari buruzko maiatzaren 24ko 1/2013 Zirkularra.

f) Aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzko Espainiako Bankuaren azaroaren 17ko 6/2015 zirkularra, ordainsarien txostenei eta gobernu korporatiboari buruzko alderdi jakinak arautzen dituen, baita edukia eta kudeaketa-protokoloaren eta finantza-planaren beste alderdi batzuk.

g) Kontabilitateko eta Kontu Auditoriako Institutuak Kontabilitate Plan orokorra eta haren arau osagarriak garatuz onartutako nahitaez bete beharreko arauak.

h) Espainian kontabilitate-alorrean aplikatzekoa den gainerako araudia.

### *3.2 Irudi leiala*

Gaineratzen diren urteko kontu kontsolidatuak Taldearen eta haren sozietate partaidetuen kontabilitate-erregistroetatik atera dira, eta hemen aurkezten dira aplikatzekoa den finantza-informazioari buruzko arau-esparruari jarraikiz, eta, bereziki, arau-esparru horretan bildutako kontabilitate-printzipio eta -irizpideei jarraikiz, Taldearen ondarearen, finantza-egoeraren eta ekitaldi honetan Taldeak izandako emaitzen eta eskudiru-fluxuen irudi leiala erakusteko moduan.

Taldeko zuzendari nagusiak patronatuaren 2019ko azaroaren 28ko erabakiaren bidez ahalmenduta formulatu dituen urteko kontu kontsolidatu hauek Fundazioaren Patronatuari aurkeztuko zaizkio, onartzeko. Bestetik, Patronatuak Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioaren 2018ko ekitaldiko urteko kontu kontsolidatuak onartu zituen 2019ko martxoaren 28an egindako bileran.

### *3.3 Balioespenaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren estimazioa*

Erantsitako urteko kontuak egiteko, Taldearen arduradunek egindako zenbatespenak erabili dira batzuetan, kontu horietan erregistratuta dauden zenbait aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu eta konpromiso balioesteko. Funtsean, aktibo material eta immaterialen bizitza baliagarriari buruzko (ikus 6. eta 7. oharrak) eta finantza-tresna jakin batzuen merkatu-balioari buruzko (ikus 8. oharra) estimazioak dira.

2019ko ekitaldia ixtean eskura genuen informaziorik onena oinarritzat hartuta egin ditugu zenbatespen horiek, baina hala ere litekeena da etorkizuneko gertaeren ondorioz hurrengo ekitaldietan aldatu behar izatea (gorantz edo beherantz), eta hori, hala badagokio, prospekzio moduan egingo litzateke.

### *3.4 Informazioaren konparazioa*

Indarreko araudiak eskatutakoa betez, Urteko Kontu kontsolidatu hauetan 2019ko ekitaldiari dagokionez banandutako informazioa 2019ko ekitaldiko informazioarekin konparatzeko aurkezten da, eta beraz, ez da 2019ko ekitaldiko Urteko Kontu kontsolidatuen parte. Urteko kontu hauetan bildutako informazio konparatiboa desberdina da Fundazioaren Patronatuak onartutako 2018ko ekitaldiko urteko kontuetan bildutakoarekiko, ondorengo 3.6 oharrean banandutako kontabilitate-irizpidearen aldaketaren eta errorearen zuzenketaren ondorioz.

### *3.5 Partiden taldekatzea*

Balantze kontsolidatuaren, galera-irabazien kontu kontsolidatuaren, ondare garbiko aldaketen egoera-orri kontsolidatuaren eta eskudiru-fluxuen egoera-orri kontsolidatuaren partida jakin batzuk taldeka aurkeztu dira errazago ulertzeko, baina zenbait informazio bereizita ere azaldu dira memoriaren oharretan, esanguratsuak diren heinean.

### *3.6 Aldaketak kontabilitate-irizideetan, erroreak eta kontabilitate-estimazioak*

2019ko ekitaldian, zerga geroratuengatiko aktiboak jasotzeari buruzko kontabilitate-irizpidea aldatu du Fundazioak, aldaketa horrek aktibo horiek jasotzea eragin duelarik. 2012. eta 2018. urteen arteko ekitaldietan sortutako zerga-oinarri negatiboek sortu dituzte aktibo horiek (ikus 14.2 oharra).

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauko 30 artikuluak ezartzen duen posibilitatearen –hau da, Fundazioaren Gizarte Ekintzari esleitutako zenbatekoak kentzeko aukera Fundazioak berak edo Bankuak aplikatu ahal izatearen– ondorioz, Fundazioak orain arte ez zuen Bankuaren aurrean inolako kredituri
k erregistratzen, (hain zuzen ere, Fundazioak sortutako zerga-oinarri negatiboen Talde Fiskalen barruko konpentsazioaren bidez eta, funtsean, Gizarte Ekintzari esleitutako zenbatekoekin bat datozenak izanik).

2019ko ekitaldian, irizpide hori aldatzea erabaki du Fundazioak, uste baitu zerga-oinarri negatibo horien konpentsazioa, kontraprestaziorik gabe, azken batean Fundazioak Bankuan duen partaidetzaren balioa hazten duen aktibotzat hartu behar dela. Fundazioaren zuzendari nagusiaren iritziz, irizpide hori aldatzeak hobekuntza dakar Fundazioaren beraren informazioaren aurkezpenean.

Atzeraeraginez aplikatu da irizpide-aldaketa hori, honako hau izan da eraginpeko partidetan izan duen efektua 2019ko eta 2018ko ekitaldietan:

| | Milako euro | |
|---|---|---|
| | 2019 | 2018 |
| **Aktiboa** | | |
| Taldeko erakundeetan eta epe luzerako elkartuetan egindako inbertsioak | 5.675 | 15.292 |
| Zerga geroratuarengatiko aktiboak | (766) | 5.890 |
| **Ondare garbia** | | |
| Erreserbak | - | 20.366 |
| Erreserbak baliokidetzan jarritako sozietateetan | 4.406 | (422) |
| Sozietateen emaitzak baliokidetzan jartzeagatik | (3.681) | (4.528) |
| **Emaitza-kontua:** | | |
| Finantza-tresnen besterentzeengatiko narriadura eta emaitza | (940) | (124) |
| Mozkinen gaineko zerga | 5.124 | 5.890 |

Horrekin batera 2019ko ekitaldian kontsolidazioa zuzentzeari ekin zaio, 2018ko ekitaldian bankuan duen partaidetzaren baliokidetasunen jartzeagatiko egozpenari jarraikiz, eta horrela, Bankuaren IFRS9 arauaren lehen aplikazioko idazpenaren efektua barnean hartu da, eta kontsolidaziopeko Bankuaren Ondare Garbi totalaren zenbatekoa zuzendu da. Zuzenketa hori 2018ko ekitaldian aplikatu da zuzenean, eta honako hau izan da 2019ko eta 2018ko ekitaldien efektua:

| | Milako euro | |
|---|---|---|
| | 2019 | 2018 |
| **Aktiboa** | | |
| Taldeko erakundeetan eta epe luzerako elkartuetan egindako inbertsioak | (6.617) | (6.617) |
| **Ondare garbia** | | |
| Ekitaldiaren soberakina – Sozietateen mozkinetan (galeretan) parte hartzea baliokidetzan jartzeagatik | - | 22.192 |
| Erreserbak baliokidetzan jarritako sozietateetan | (6.617) | (28.809) |

Ekitaldian ez da beste aldaketarik izan kontabilitate-zenbatespenetan, ezta arrazoi horiegatik 2018ko ekitaldian urteko kontuetan barne hartutako zenbatekoen berradierazpena eragin duen errore esanguratsurik ere.

## 4. Emaitzaren aplikazioa

Fundazioaren Patronatuari honako proposamen hau egingo zaio ekitaldiko soberakin positiboa aplikatzeko, onar dezan (milako eurotan):

| | 2019ko Ekitaldia |
|---|---|
| **Banaketa-oinarria** | |
| Ekitaldiko soberakina | (95.031) |
| **Aplikazioa** | |
| Erreserbak (11. oharra) | 95.031 |
| **Guztizkoa** | - |

## 5. Erregistro- eta balioespen-arauak

Taldeak bere 2019ko ekitaldiko urteko kontu kontsolidatuak egiteko erabili dituen erregistro- eta balioespen-arau nagusiak, Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritakoen arabera, honako hauek izan dira:

### 5.1 Aplikatutako kontsolidazio-printzipioak

*Kontsolidazio-perimetroaren barnean hartutako sozietateen arteko transakzioak*

Kontsolidazio-prozesuan integrazio globalaren bidez kontsolidatutako sozietateen arteko saldoak, transakzioak eta emaitzak ezabatu dira. Taldeko enpresen eta enpresa elkartuen arteko eragiketengatiko emaitzak ezabatu egin dira Taldeak azken horietan duen partaidetza-ehunekoan.

*Partiden homogeneizazioa*

Taldeko sozietateek erabilitako kontabilitate-printzipio eta -prozedurak homogeneizatu egin dira, finantzetako egoera-orri kontsolidatuak balioespen-oinarri homogeneoarekin aurkezteko.

### 5.2 Ibilgetu ukiezina eta materiala

*Ibilgetu ukiezina-*

Arau orokor gisa, ibilgetu ukiezina balioesten da bere erosketa-prezioaren edo produkzio-kostuaren arabera. Ondoren, haren kostuaren arabera balioesten da, dagokion amortizazio metatua gutxituta, eta, hala badagokio, narriaduragatik izandako galerak gutxituta, azken horiek 5.4 oharrean deskribatutako irizpideari jarraikiz kalkulatuta. Aktibo horiek beren bizitza baliagarriaren arabera amortizatzen dira. Aktibo horien bizitza baliagarria ezin denean ezarri modu fidagarrian, hamar urteko epean amortizatzen dira.

2019ko abenduaren 31ko balantze kontsolidatuaren epigrafe erantsian bildu da, funtsean, aplikazio informatiko bat garatu eta ezartzeko kostua, garbia haren amortizazio metatuari dagokionez. Elementu horiek 3 urtean amortizatzen dira irizpide lineal bati jarraikiz, eta 2019ko abenduaren 31n guztiz amortizatuta egonik.

*Ibilgetu materiala-*

Hasiera batean ibilgetu materialaren elementuak balioesten dira haien erosketa-prezioaren arabera, produkzio-kostuaren arabera edo arrazoizko balioaren arabera, baldin eta elementuak doan erosi badira, eta jarraian dagokion amortizazioa metatua gutxitzen zaie, baita narriaduragatiko galerak ere, halakorik badago, 5.4 oharrean aipatutako irizpideari jarraikiz.

Ibilgetu materiala osatzen duten elementuak kontserbatzeko eta mantentzeko gastuak dagokien ekitaldiko galera-irabazien kontu kontsolidatuari egozten zaizkio. Aitzitik, ondasun horien ahalmena edo efizientzia handitzeko edo haien bizitza baliagarria luzatzeko lagungarri diren hobekuntzetan inbertitutako zenbatekoak haien kostu handiago gisa erregistratzen dira.

Ibilgetu materiala haren erosketa-prezioaren eta merkatu-balioaren arteko txikiagoan balioesten da.

Gainerako ibilgetu materiala amortizatzen da metodo linealari jarraikiz, urteko amortizazio-ehunekoak aplikatuz ondasunen bizitza baliagarri zenbatetsiaren (urteak) arabera, honako xehetasun hauei jarraikiz:

| | Bizitza baliagarri estimatua (urteak) |
|---|---|
| Higiezinak | 33 |
| Datuak prozesatzeko ekipamenduak | 4-10 |
| Altzariak, instalazioak eta beste batzuk | 6-10 |

### *5.3 Erakundeak kontraprestaziorik gabe lagatako aktiboak*

Ibilgetu bat kontraprestaziorik gabe ematen edo lagatzen bada, betiko edo aktiboaren bizitza baliagarriaren denborarako edo denbora gehiagorako, erakundearen irabazi-asmorik gabeko xedeak betez, gastu gisa kontabilizatuko da emaitza-kontuan, lagatako aktiboaren kontabilitate-balioaren arabera.

Lagapena egiten bada ibilgetuaren bizitza baliagarria baino denbora gutxiagorako, gastua jasoko da lagatako eskubideak eskubidearen entrega edo lagapena egiten den ekitaldian duen kontabilitate-balioaren arabera, kontrapartida gisa ibilgetua konpentsatzeko kontu bat erabiliz. Aktibo amortizagarrien kasurako, kontu konpentsatzailearen saldoa birsailkatuko da amortizazio metatuaren saldoaren arabera lagapenaren epean, aktiboaren balio-galera sistematikoari jarraikiz.

### *5.4 Ibilgetu materialaren eta ukiezinaren balioa narriatzea*

Ekitaldi bakoitza ixtean Fundazioak, “Narriadura-testa” eginez, balio-galerarik ba ote dagoen aztertzen du, zehazkiago, aktibo horien balio berreskuragarria haien kontabilitate-balioaren azpira murrizteko moduko balio-galerarik ba ote dagoen aztertzen du.

Oro har, aktibo ukiezinen eta ibilgetu materialaren narriadura elementuz elementu kalkulatzen da, banan-banan. Eskudiru-fluxurik sortzen ez duen ibilgetu materialaren elementu baten balioaren narriaduragatiko galera gertatuko da elementuaren kontabilitate-balio garbiak dagokion zenbateko berreskuragarria gainditzen duenean, zenbateko hori gehieneko zenbatekotzat hartuta dagokion arrazoizko balioaren artean, salmenta-kostua eta dagokion erabilerako balioa kenduta. Horretarako, erabilerako balioa birjarpen-balioaren arabera zehaztuko da.

Balio-narriaduragatiko galera bat ondoren atzera itzultzen bada, aktiboaren kontabilitate-zenbatekoa handitu egiten da bere zenbateko berreskuragarriaren zenbatespen berraztertuaren arabera, baina handitutako kontabilitate-zenbatekoak ezin izango du gainditu aurreko ekitaldietan narriaduragatiko galerarik jaso ez balitz zehaztuko zatekeen kontabilitate-zenbatekoa. Balio-narriaduragatiko galera baten itzulketa hori diru-sarreratzat jasotzen da.

### *5.5 Higiezinetako inbertsioak*

Erantsitako balantzearen higiezinetako inbertsioen epigrafeak ondo mantentzen diren lur, eraikin eta bestelako eraikuntzen balioak biltzen ditu alokairu-erregimenean ustiatzeko, edo saltzean gainbalio bat lortzeko dagozkien merkatu-prezioetan etorkizunean gertatzen diren gehikuntzen ondorioz.

Ibilgetu materialari buruzko 4.1 oharrean adierazitako irizpideen arabera balioesten dira aktibo horiek.

### *5.6 Errentamenduak*

Errentamendu operatibo gisa sailkatzen dira errentamenduak, betiere errentamendu horien baldintzetatik ondorioztatzen bada errentariari funtsean eskualdatzen zaizkiola kontratuko aktiboaren jabetzak berezko dituen arrisku eta onurak. Taldearen errentamendu-kontratu guztiak errentamendu operatibo gisa sailkatu dira.

Errentamendu operatiboko akordioetatik eratorritako gastuak, sortzen diren ekitaldiko galera-irabazien kontu kontsolidatuan kargatzen dira.

Errentamendu operatibo bat kontratatzean egin daitekeen edozein kobrantza edo ordainketa aurreratutako kobrantzatzat edo ordainketatzat joko da, eta emaitzei egotziko zaie errentamenduaren aldian, errentan jarritako edo hartutako aktiboaren mozkinak jaso edo laga ahala.

### *5.7 Finantza-tresnak*

<u>Finantza-aktiboak</u>

*Sailkapena-*

Taldeak dituen finantza-aktiboak honako kategoria hauetan sailkatzen dira:

(i) Kobratu beharreko maileguak eta partidak: Taldearen trafiko-operazioen zerbitzu-ematean edo ondasunak saltzean sortutako finantza-aktiboak, edo bestela, merkataritza-jatorririk izan gabe, ondare-tresnak edo deribatuak ez direnak, baldin eta zenbateko finko edo zehazteko moduko baten arabera kobratzen badira, merkatu aktibo batean negoziatu gabe.

(ii) Negoziatzeko mantendutako finantza-aktiboak: epe laburrean besterentzeko helburuarekin erosi dira, edo bestela, zorro baten parte izanik, epe laburrean helburu horrekin erabiliko direla uste da. Finantza-bermeen kontratuak ez diren finantza-deribatuak ere biltzen dira kategoria horretan, abalak adibidez, edota estaldura-tresna izateko izendatu ez direnak.

(iii) Saltzeko erabilgarri dauden finantza-aktiboak: zorra adierazten duten baloreak eta aurreko kategorietan sailkatu ez diren beste erakunde batzuen ondare-tresnak barne.

*Hasierako balioespena-*

Finantza-aktiboak hasiera batean emandako kontraprestazioaren balio arrazoigarrian gehi zuzenean esleitu daitezkeen transakzioaren kostuarekin erregistratzen dira, oro har.

*Ondorengo balioespena-*

Kobratu beharreko mailegu eta partidak amortizatutako kostuaren arabera balioesten dira, eta interes efektiboaren tasaren metodoa erabiliz. Amortizatutako kostua finantza-aktibo baten erosketa-kostua da, honako hauek zuzenduta: batetik, printzipal-itzulketak, eta, bestetik, interes efektiboaren tasaren metodoa erabiliz, hasierako kostuaren eta muga-egunean itzultzeko balioaren arteko diferentzialetik galera-irabazien kontuan egotzitako zatiak. Gainera, emaitza horri narriaduragatiko edozein balio-galera kenduko zaio, zuzenean aktiboaren zenbatekoaren murrizketa gisa jasota, edo haren balioa zuzentzeko kontu baten eraginez jasota.

Interes efektiboaren tasa eguneratze-tasa bat da, eta finantza-tresna baten hasierako balioa berdintzen du gelditzen zaion bizitzan kontzeptu guztiengatik estimatutako eskudiru-fluxu guztietara. Interes finkoko tasen araberako finantza-tresnetarako, interes efektiboaren tasa bat dator erosketaren unean ezarritako kontratu-interesaren tasarekin, hala badagokio, interes-tasa batekin parekatzeko modukoak diren komisioak gehituta. Interes aldakorreko tasen araberako finantza-tresnetan, berriz, interes efektiboaren tasa bat dator, hala badagokio, erreferentziazko interes-tasa berraztertu arte kontzeptu guztiengatik indarrean dagoen etekin-tasarekin.

Bere jardueran zero interes-tasan edo merkatu-interesaren azpitik emandako maileguak beren arrazoizko balioaren arabera kontabilizatuko dira. Arrazoizko balioaren eta emandako zenbatekoaren arteko aldea, hasiera batean, galera-irabazien kontu kontsolidatuaren gastu gisa jasotzen da, haren izaeraren arabera. Hasiera batean jaso eta gero, egindako deskontuaren itzulketa diru-sarrera finantzario gisa kontabilizatuko da galera-irabazien kontu kontsolidatuan.

Negoziatzeko mantendutako finantza-aktiboak beren arrazoizko balioaren arabera balioesten dira, eta arrazoizko balio horren araberako aldakuntzen emaitza galera eta irabazien kontuan erregistratzen da “Arrazoizko balio-aldakuntza finantza-tresnetan” epigrafean.

Azkenik, salmentarako eskuragarri dauden finantza-aktiboak beren arrazoizko balioaren arabera balioesten dira, eta Ondare Garbian erregistratzen da arrazoizko balio horren aldakuntzen emaitza, aktiboa besterendu edo balio-narriadura (egonkor edo iraunkorra) izan arte; une horretan, Ondare Garbian aldez aurretik jasotako emaitza metatuak galera-irabazien kontu erregistratuan erregistratzen dira. Ildo horretan, narriadura iraunkorra dagoelako susmoa dago baldin eta aktiboaren kotizazio-balioa % 40tik gora jaitsi bada, edota balio horrek urte eta erditik gora etengabe behera egin badu balioa berreskuratu gabe.

Gutxienez ekitaldia ixtean, Taldeak narriadura-test bat egiten du arrazoizko balioaren arabera erregistratuta ez dauden finantza-aktiboetarako. Narriaduraren nabaritasun objektiboa dagoela ulertzen da baldin eta finantza-aktiboaren balio berreskuragarria haren kontabilitate-balioa baino txikiagoa bada. Horrelakorik gertatzen bada, narriadura horren erregistroa galera-irabazien kontu kontsolidatuan erregistratzen da.

Taldeak finantza-aktiboei baja ematen die amaitzen direnean edo dagokion finantza-aktiboaren eskudiru-fluxuen gaineko eskubideak laga direnean eta haien jabetzari datxezkion arriskuak eta onurak neurri handi batean eskualdatu direnean, esaterako, aktibo-salmenta irmoetan, "factoring" eragiketen merkataritza-kredituen lagapenetan, non erakundeak ez duen inolako kreditu- edo interes-arriskurik atxikitzen, edo beren arrazoizko balioan berrerosteko ituna duten finantza-aktiboen salmentetan.

Aitzitik, Taldeak ez die finantza-aktiboei baja ematen, eta jasotako kontraprestazioaren zenbateko berdina duen finantza-pasibo bat jasotzen du, aktibo horien jabetzari lotutako arriskuak eta onurak neurri handi batean atxikitzen diren finantza-aktiboen lagapenetan, esaterako efektuen deskontua, "factoring errekurtsoarekin" edo finantza-aktiboen erosketak prezio finko batean edo salmenta-prezioa gehi interes batekin berrerosteko itunekin.

Finantza-pasiboak

Finantza-pasiboak Taldeak ordaindu beharreko zordunketa eta partidak dira, Taldearen trafiko-eragiketen bitartez ondasun eta zerbitzuak erosiz sortu direnak, xede propioak betez erakundearen onuradunei emandako laguntzen eta beste esleipen batzuen ondorioz. Merkataritza-jatorri bat eduki gabe finantza-tresna deribatutzat jo ezin daitezkeenak ere finantza-pasiboak dira.

Ordaindu beharreko zorrak eta partidak jasotako (eta zuzenean eslei daitezkeen transakzioaren kostuekin doitutako) kontraprestazioaren arrazoizko balioan balioesten dira hasiera batean. Ondoren, pasibo horiek beren kostu amortizatuaren arabera balioesten dira.

Jardueran aritzean emandako laguntzen kasuan, konprometitutako gastu guztiaren araberako pasibo bat jasotzen da. Laguntza urte anitzerako ematen bada edo izapide formal edo administratiboak bete behar baditu bakarrik, pasiboa erregistratzen da modu ezeztaezin eta baldintzarik gabe irmoki konprometitutako zenbatekoaren egungo balioaren arabera.

Taldeak finantza-pasiboei baja ematen die haiek sortu dituzten betebeharrak azkentzen direnean.

### *5.8 Mozkinen gaineko zerga*

Mozkinaren gaineko Zergaren gastuan edo diru-sarreran sartzen dira, batetik, zenbateko arruntaren araberako gastuari edo diru-sarrerari dagokion zatia, eta, bestetik, geroratutako zergengatiko gastuari edo diru-sarrerari dagokion zatia.

Ekitaldi baten Soberakinaren gaineko Zergaren zerga-likidazioen ondorioz Taldeak ordaintzen duen kopurua da zerga arrunta. Salbuetsitako jarduerengatik sortutako emaitzen zenbatekoa, kenkariak eta zergaren kuotako beste abantaila fiskal batzuk, konturako ordainketak eta atxikipenak kanpo utziz, baita aurreko ekitaldietakoak diren eta ekitaldi honetan efektiboki aplikatzen diren galera fiskal konpentsagarriak ere, zerga arruntaren zenbatekoa txikiagoa izatea dakarte.

Geroratutako zergengatiko gastuak edo diru-sarrerak aktibo eta pasiboen eta haien zerga-balioaren jasotze eta kitatzearekin dute zerikusia, baita konpentsatzeke dauden zerga-oinarri negatiboekin eta zerga-arloan aplikatu ez diren zerga-kenkariengatiko kredituekin ere. Zenbateko horiek dagokion denbora-diferentziari edo kredituari berreskuratze edo likidaziorako aurreikusitako zerga-tasa aplikatuz erregistratzen dira.

Zerga gerorатuengatiko pasiboak jasotzen dira denbora-diferentzia ezargarri guztietarako, zerga-emaitza edo kontabilitate-emaitza ukitzen ez dituen eta negozioen konbinazioa ez den eragiketa batean merkataritza-funtsen edo beste aktibo edo pasibo batzuen hasierako jasotzetik eratorritakoak salbu.

Bestetik, geroratutako zergengatiko aktiboak bakar-bakarrik jasotzen dira uste baldin bada Taldeak zerga-irabaziak eduki ditzakeela haiek gauzatu ahal izateko.

Era berean, maila kontsolidatuan kontuan hartzen dira partaidetu baten balio kontsolidatuaren eta bere oinarri fiskalaren artean egon daitezkeen diferentziak. Oro har, diferentzia horiek sortzen dira partaidetuaren erosketa-datatik sortutako emaitza metatuetatik, inbertsioari lotutako zerga-kenkarietatik eta bihurketa-diferentziatik, euroaz bestelako moneta funtzionala duten partaidetuen kasuan. Diferentzia horiengatik sortutako aktiboak eta pasiboak jasotzen dira, salbu eta, diferentzia zergagarrien kasuan, inbertitzaileak diferentziaren itzulketaren unea kontrola dezakeenean, eta, diferentzia kengarrien kasuan, diferentzia hori etorkizun aurreikusgarri batean itzultzea espero denean eta enpresak behar adinako zenbatekoko zerga-irabaziak izango dituela uste denean.

Zerga gerorатuengatiko aktiboak eta pasiboak, ondare-kontuetan zuzeneko kargu- edo ordainketa-eragiketengatik sortuak, era berean ondare garbian kontrapartida jarriz kontabilizatzen dira.

Kontabilitate-itxiera bakoitzean erregistratutako zerga gerorатuengatiko aktiboak kontuan hartzen dira, aktibo horiei bidezko diren zuzenketak eginez etorkizunean berreskuratuko diren ala ez zalantzak dauden neurrian. Era berean, itxiera bakoitzean balantzean erregistratu gabeko zerga gerorатuengatiko aktiboak ebaluatzen dira, eta jaso egiten dira etorkizuneko mozkin fiskalekin berrekuratzea balizkoa den neurrian.

### *5.9 Diru-sarrerak eta gastuak*

Gastuak sortzapen-irizpideari jarraikiz egozten dira, hau da, gastu horiek ordezkatzen dituzten ondasun eta zerbitzuen korronte erreala gertatzen denean, sarrera eta gastu horien ondoriozko moneta- edo finantza-korrontea gertatzen den unea edozein izanik ere. Zehazki, laguntza monetario eta ez-monetarioetatik eratorritako gastuak erregistratzen dira, oro har, erakunde onuradunari ematea onartzen den unean.

Bestetik, etorkizuneko ekitaldiak (erakusketak, biltzarrak, hitzaldiak etab.) antolatzearekin zerikusia duten ordainketak erakundearen galera-irabazien kontu kontsolidatuan jasotzen dira, egiten diren eguneko gastu gisa, salbu eta ibilgetuaren ondasunak erostearekin, ekitaldia antolatzeko eskubideekin edo aktibo-definizioa betetzen duen beste edozein kontzepturekin zerikusia badute.

Salmentengatiko sarreren jasotzea saldutako ondasunaren jabetzari lotutako arrisku eta onura esanguratsuak transferitu zaizkion unean gertatzen da, ondasun horren gaineko kudeaketa arrunta mantendu gabe, eta horren gaineko kontrol efektiboa atxiki gabe.

Zerbitzu-emateagatiko diru-sarrerak jasotzerakoan, berriz, balantze kontsolidatuaren egunean prestazioa zenbateraino bete den hartzen da aintzat, betiere transakzioaren emaitza fidagarritasunez estimatzeko moduan badago.

Erabiltzaile edo afiliatuen kuotak jasotzen dira dagozkien aldiko diru-sarrera gisa.

Finantza-aktiboen ondoriozko interesak jasotzen dira interes efektiboaren tasaren metodoa erabiliz, eta dibidenduak, berriz, akziodunak haiek jasotzeko eskubidea duela adieraztean. Nolanahi ere, erosketa-unearen ostean sortutako finantza-aktiboen interesak eta dibidenduak diru-sarrera gisa jasotzen dira galera-irabazien kontu kontsolidatuan.

### *5.10 Hornidurak eta kontingentziak*

Urteko kontu kontsolidatuetan honako hauek bereizten dira:

a) Hornidurak: igarotako gertakarietatik eratorritako egungo betebeharrak estaltzen dituzten saldo hartzekodunak, saldo horien kitapenak baliabide-irteera sor dezakeela, baina zehatzezinak direnak beren zenbatekoari eta/edo kitatzeko uneari dagokienez.

b) Pasibo kontingenteak: Lehengo gertaeren ondorioz sor daitezkeen betebeharrak, etorkizunean gertaera bat edo gehiago gertatzeak edo ez gertatzeak baldintzatuta daudenak, Taldearen Fundazioaren borondatetik aparte.

Hornidura batzuekin aukera gehiago daude obligazioa izateko ez izateko baino, eta hornidura horiek urteko kontu kontsolidatuetan jasotzen dira. Oso txikiak direnean izan ezik, pasibo kontingenteak ez dira urteko kontu kontsolidatuetan jasotzen, eta, horren ordez, memoriaren oharretan haiei buruzko informazioa ematen da.

Hornidurak betebeharra kitatzeko edo transferitzeko beharrezko zenbatekoaren balioespen posible onenaren egungo balioarekin balioesten dira, gertakariaren eta haren ondorioei buruz eskura dagoen informazioa kontuan izanik, eta hornidura horiek eguneratzeagatik sortzen diren doikuntzak finantza-gastu bezala erregistratuz sortzen den heinean.

Betebeharra likidatzeko unean hirugarren baten eskutik jaso beharreko konpentsazioa, betiere argi badago ordainketa hori jasoko dela, aktibo gisa erregistratzen da, salbu eta arriskuaren zati bat lege-lotura baten bidez azaleratu bada, eta, horren arabera, Taldea erantzutera behartuta ez badago; gauzak horrela, konpentsazioa kontuan hartuko da, hala badagokio, dagokion horniduraren zenbatekoa kalkulatzeko.

### *5.11 Lanetik kaleratzeagatiko kalte-ordainak*

Indarreko legeriaren arabera, Taldeak kalte-ordainak ordaindu beharko dizkie langileei, baldin eta, baldintza jakin batzuetan, haiekin dauzkan lan-harremanak desegitea erabakitzen badu. Hortaz, arrazoizko kuantifikazioa izan dezaketen kaleratzeagatiko kalte-ordainak gastu gisa erregistratzen dira kaleratzearen erabakia hartzen den ekitaldian, baldin eta eraginpeko langilearen edo kolektiboaren kaleratzea nahiko ziurtzat jotzen bada.

2019ko ekitaldian ez da kaleratzeagatiko kalte-ordainik erregistratu, ez baitago aurreikusita horrelako egoerarik. Gainera, 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n ez zegoen kalte-ordain bat ere ordaintzeko.

Horregatik, urteko kontu kontsolidatu horietan ez da hornidurarik jaso kontzeptu horretarako.

### *5.12 Ingurumen-izaerako ondare-elementuak*

Taldearen jardueran iraunkortasunez erabiltzen direnak dira ingurumen-izaerako aktiboak, hain zuzen ere helburu nagusitzat ingurumen-inpaktua murriztea eta ingurumena hobetzea daukatenak, etorkizuneko kutsadura murriztea edo deuseztatzea barne.

Taldeak ez du ingurumen-izaerako ondare-elementurik.

### *5.13 Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak*

Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak kontabilizatzeko, Taldeak honako irizpide hauei jarraitzen die:

a) Itzultzekoak ez diren kapitaleko dirulaguntza, dohaintza eta legatuak: moneta-izaerakoak izan edo ez, emandako zenbatekoaren edo ondasunaren arrazoizko balioaren arabera balioesten dira, eta emaitzei egozten zaizkie aldi horretan diruz lagundutako elementuetarako egindako amortizazioaren zuzkiduraren arabera, edo, hala badagokio, besterentzea edo narriaduragatiko balioespen-zuzenketa gertatzen bada. Xede espezifiko bati esleitu gabe lortzen diren itzultzekoak ez diren dirulaguntza, dohaintza eta legatuak, jasotzen diren ekitaldiaren soberakinean kontabilizatuko dira zuzenean.

b) Itzultzekoak diren dirulaguntzak: itzultzekoak diren bitartean pasibo gisa kontabilizatzen dira.

c) Ustiapeneko dirulaguntzak: emaitzen arabera ordaintzen dira ematen diren unean, salbu eta etorkizuneko ekitaldietako ustiapen-defizita finantzatzera bideratzen badira, eta, kasu horietan, ekitaldi horiei egotziko zaizkie. Gastu espezifikoak finantzatzeko ematen badira, ondare garbiari eta aldi berean galera-irabazien kontu kontsolidatuari egotziko zaizkie, finantzatutako gastuak sortu ahala.

Kontraprestaziorik gabe jasotako zerbitzuen kasuan, gastu bat jasotzen da haren izaeraren arabera, eta diru-sarrera bat, berriz, dirulaguntza/dohaintza gisa, jasotako zerbitzuaren arrazoizko balioaren estimazio onenaren arabera.

Dirulaguntza, dohaintza edo legatuak bazkideek, sortzaileek edo patronoek ematen badituzte, irizpide berari jarraituko zaio, salbu eta fundazio-hornidura edo gizarte-funts gisa ematen badira, eta kasu horretan zuzenean jasoko dira erakundearen funts propioetan. Funts propioetan jasoko dira, halaber, hirugarren batek fundazio-zuzkidurari edo gizarte-funtsari egindako ekarpenak.

Aurrekoa gorabehera, laguntza jasotzen duen erakundea jasotako funtsen onuraduna ez bada, emailearen eta azken hartzaileen bitartekari soila baizik, lortutako zenbatekoak ez du eraginik haren galera-irabazien kontu kontsolidatuan, eta izaten diren altxortegi-mugimenduak baino ez dira erregistratzen. Nolanahi ere, Taldearentzat erantzukizunak erator badaitezke jasotako laguntza behar bezala gauzatzeko, dagokion hornidura kontabilizatzen da.

### *5.14 Salmentarako mantendutako aktibo ez-korronteak eta elementu multzo besterengarriak*

Taldeak aktibo ez-korronte bat edo multzo besterengarri bat salmentarako mantendu gisa sailkatzen du hura saltzeko erabakia hartu eta ondorengo hamabi hilabeteetan salduko duela uste duenean.

Aktibo edo multzo besterengarri horiek balioesten dira beren kontabilitate-balioaren edo arrazoizko balioaren artean txikiena den balioaren arabera, salmentarako behar diren kostuak kenduta.

Salmentarako mantendutako aktibo ez-korronteak ez dira amortizatzen, baina egoera-balantze bakoitzaren egunean dagozkion balioespen-zuzenketak egiten dira kontabilitate-balioak gaindi ez dezan arrazoizko balioari salmenta-kostuak kentzearen ondoriozko emaitza.

Aktibo batek salmentarako mantendutako aktibo gisa sailkatua izateko eskakizunak betetzeari uzten dionean, balantzean bere izaerari dagokion partidan birsailkatuko da, eta birsailkapena egin behar den datan, honako bi zenbateko hauetatik txikienarekin balioetsiko da: batetik, salmentan dagoen aktibo ez-korronte gisa sailkatua izan aurretik zuen kontabilitate-balioa, bidezko izanez gero salmentarako mantendutako aktibo gisa sailkatua izan ez balitz jasoko liratekeen amortizazio eta balio-zuzenketekin doitua, eta bestetik, bere zenbateko berreskuragarria; bere izaerari dagokion emaitza-kontuko partidan erregistratuz edozein diferentzia.

Salmentarako mantendutako aktibo ez-korronteek eta elementu multzo besterengarriek sortutako diru-sarrera eta gastuek etendako eragiketa gisa sailkatzeko betekizunak betetzen ez badituzte, galera-irabazien kontuaren partidan jasotzen dira, izaeraren arabera.

### *5.15 Partida korronteak eta ez-korronteak*

Aktibo korronteak honako hauek dira: ustiapen-ziklo arruntari (urtebete, normalean) lotuta daudenak; aurreikuspenen arabera epe laburrean amaitu, besterendu edo gauzatuko direnak, ekitaldia ixten den egunaz geroztik; negoziatzeko mantendutako finantza-aktiboak, urtebetetik gorako likidazio-epea duten finantza-deribatuak izan ezik; eta beste aktibo likido baliokide batzuk. Betekizun horiek betetzen ez dituzten aktiboak ez-korronte gisa sailkatzen dira.

Halaber, pasibo korronteak dira ustiapen-ziklo arruntari lotzen zaizkionak; negoziatzeko mantendutako finantza-pasiboak, urtebetetik gorako likidazio-epea duten finantza-deribatuak izan ezik; eta, oro har, epe laburrean amaitu edo besterenduko diren obligazio guztiak. Gainerako guztiak ez-korronte gisa sailkatzen dira.

## 6. Ibilgetu ukiezina

Ibilgetu ukiezina "Fototeka" izeneko aplikazio informatikoari dagokio, aplikazioaren erabiltzaileek argazki-artxibo digitalizatu gisa erabil dezaten sortutakoa

Ibilgetu ukiezin honen kostua 2.421 milako euro da, erabat amortizatuta dago eta erabileran dago 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, bi ekitaldi horietan inolako mugimendurik izan gabe.

## 7. Ibilgetu materiala, Higiezinen Inbertsioak eta salmentarako mantendutako aktibo ez-korronteak

### *7.1 Ibilgetu materiala*

Jarraian azalduko dugu, batetik, 2019ko eta 2018ko ekitaldietan Ibilgetu Materialaren kapitulu honetan izandako *mugimendua,* eta, bestetik, epigrafe horri dagokion informazio esanguratsuena (milako eurotan).

*2019ko Ekitaldia*

| | Milako euro | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Hasierako saldoa | Eransketak / Zuzkidurak | Irteerak edo Kenketak | Aktibo-lagapenengatiko intsuldaketak | Higiezinetako inbertsioetarako intsuldaketak | Amaierako saldoa |
| **Kostua:** | | | | | | |
| Instalazioak, Altzariak eta Informazio Ekipamenduak | 7.479 | 112 | - | - | (379) | 7.212 |
| Aribideko ibilgetua | 39 | 197 | (39) | - | - | 197 |
| Lurrak eta eraikuntzak | 39.397 | 25 | - | - | (4.466) | 34.956 |
| Guztizkoa | 46.915 | 334 | (39) | - | (4.845) | 42.365 |
| **Amortizazioa:** | | | | | | |
| Instalazioak, Altzariak eta Informazio Ekipamenduak | (7.182) | (2) | - | (43) | 339 | (6.888) |
| Lurrak eta eraikuntzak | (19.129) | (97) | - | (655) | 1.250 | (18.631) |
| Guztizkoa | (26.311) | (99) | - | (698) | 1.589 | (25.519) |
| **Kontraprestaziorik gabe erabilera lagatzeagatiko zuzenketa:** | | | | | | |
| Instalazioak, Altzariak eta Informazio Ekipamenduak | (290) | (57) | 68 | 43 | - | (236) |
| Lurrak eta eraikuntzak | (11.489) | (22) | 246 | 655 | - | (10.610) |
| Guztizkoa | (11.779) | (79) | 314 | 698 | - | (10.846) |
| Balio-galerarengatiko narriadura | - | - | - | - | - | - |
| **Ibilgetu Material Garbia** | **8.825** | **156** | **275** | **-** | **(3.256)** | **6.000** |

*2018ko ekitaldia*

| | Milako euro | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Hasierako saldoa | Eransketak / Zuzkidurak | Irteerak edo Kenketak | Aktibo-lagapenengatiko intsuldaketak | Higiezinetako inbertsioetarako intsuldaketak | Amaierako saldoa |
| **Kostua:** | | | | | | |
| Instalazioak, Altzariak eta Informazio Ekipamenduak | 7.290 | 189 | - | - | - | 7.479 |
| Aribideko instalazioak | - | 39 | - | - | - | 39 |
| Lurrak eta eraikuntzak | 39.661 | - | (264) | - | - | 39.397 |
| Guztizkoa | 46.951 | 228 | (264) | - | - | 46.915 |
| **Amortizazioa:** | | | | | | |
| Instalazioak, Altzariak eta Informazio Ekipamenduak | (7.101) | (81) | - | - | - | (7.182) |
| Lurrak eta eraikuntzak | (18.346) | (30) | 114 | (867) | - | (19.129) |
| Guztizkoa | (25.447) | (111) | 114 | (867) | - | (26.311) |
| **Kontraprestaziorik gabe erabilera lagatzeagatiko zuzenketa:** | | | | | | |
| Instalazioak, Altzariak eta Informazio Ekipamenduak | (64) | (226) | - | - | - | (290) |
| Lurrak eta eraikuntzak | (11.876) | (639) | 159 | 867 | - | (11.489) |
| Guztizkoa | (11.940) | (865) | 159 | 867 | - | (11.779) |
| Balio-galerarengatiko narriadura | - | - | - | - | - | - |
| **Ibilgetu Material Garbia** | **9.564** | **(748)** | **9** | **-** | **-** | **8.825** |

2018ko ekitaldian Fundazioak guztira 152 milako euro eskuratu ditu Donostiako Errenteria kaleko 17. zenbakiko higiezinari dagokion balio-zuzenketaren ondorioz, zeina hasiera batean epe jakin bateraino lagata zegoen, eta lagapena 2018ko apirilean amaitu zen. Azkenik, higiezina 2018ko irailean errentan jarri zen, eta beraz, Higiezinen Inbertsioak epigrafean sailkatu zen. Era berean, 2019ko ekitaldian, higiezin horren salmenta formalizatu du Fundazioak 117 milako euroko mozkina sortuz, diru-kopuru hori erantsitako galera-irabazien kontuko "Ibilgetuaren besterentzeengatiko narriadura eta emaitza" epigrafean bildua izan delarik.

Fundazioak guztira 865 milako euro zuzkitu ditu lagatako higiezinen zuzenketa-kontutik, lagata zeuden edota 2019ko ekitaldi honetan laga diren higiezinetan ibilgetu-altei dagozkienak. Ekitaldi hau amaitzean partzialki lagata daude Arbide II Dorrea, Enparan Dorrea, Nazaret, Herrera auzoko Casa Nao Eskola eta Irungo Eguneko Zentroa.

2019ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldia ixtean, lurren kontabilitate-balioa 7.124 milako euro zen (7.124 milako euro 2018ko abenduaren 31n).

Guztiz amortizatuta egonik 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n oraindik erabiltzen ziren ibilgetu materialaren ondasunen zenbatekoa 4.609 eta 5.175 milako euro zen, hurrenez hurren.

Modu osagarrian, "Salmentarako mantendutako aktibo ez-korronteak" epigrafeak abuztuaren 31 kaleko 30. zenbakiko lokal bat hartzen du barnean, zeinaren salmentaren negoziazioa oso aurreratuta zegoen 2018ko ekitaldiaren itxieran. 2019ko urtarrilaren 15ean formalizatu da lokal horren salerosketa-eskritura. 75 milako euroko mozkina "Ibilgetuaren besterentzeengatiko narriadura eta emaitza" epigrafean erregistratu da, erantsitako galera eta irabazien kontuan.

### *7.2 Erabilera-lagapena*

Taldeak hirugarrenei doan laga dizkie bere ibilgetuaren eskudiru-fluxuak sortzen ez dituzten hainbat elementu, baina haien titulartasunari eusten die, eta beraz elementu horiek Taldearen balantze kontsolidatuan bildu dira.

5.3 oharrean aipatutakoari jarraikiz, aktibo horiei narriadura bat esleitu behar zaie, inolako kontraprestaziorik gabe lagatako aktiboak direlako. Hona hemen lagapen horien xehetasunak:

*2019ko ekitaldia*

| Lagapen mota | Milako euro | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Erosketa-kostua | Metatutako amortizazioa | Ibilgetu-lagapenen ondoriozko balioespen-zuzenketak | Kontabilitate-balio garbia |
| Mugagabea | 23.646 | (13.267) | (10.379) | - |
| Mugatua | 11.267 | (7.999) | (467) | 2.801 |
| **Guztizkoa** | **34.913** | **(21.266)** | **(10.846)** | **2.801** |

*2018ko ekitaldia*

| Lagapen mota | Milako euro | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Erosketa-kostua | Metatutako amortizazioa | Ibilgetu-lagapenen ondoriozko balioespen-zuzenketak | Kontabilitate-balio garbia |
| Mugagabea | 24.514 | (13.387) | (11.127) | - |
| Mugatua | 14.376 | (10.879) | (652) | 2.845 |
| **Guztizkoa** | **38.890** | **(24.266)** | **(11.779)** | **2.845** |

Taldeak aseguru-polizen politika jarri du abian, bere ibilgetu materialaren elementuek izan ditzaketen arriskuak estaltzeko. 2019ko ekitaldia ixtean ez zegoen estaldura-defizitik arrisku horiei loturik.

### *7.3 Higiezinetako inbertsioak*

Jarraian azalduko dugu, batetik, 2019ko eta 2018ko ekitaldietan Higiezinetako Inbertsioen kapitulu honetan izandako *mugimendua,* eta, bestetik, epigrafe horri dagokion informazio esanguratsuena (milako eurotan).

*2019ko Ekitaldia*

| | Milako euro | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | Hasierako saldoa | Eranskketak / Zuzkidurak | Irteerak edo Kenketak | Intsuldaketak | Amaierako saldoa |
| **Kostua:** | | | | | |
| Instalazioak, Altzariak eta Informazio Ekipamenduak | - | - | - | 378 | 378 |
| Lurrak eta eraikuntzak | 399 | - | (264) | 4.467 | 4.602 |
| Guztizkoa | 399 | - | (264) | 4.845 | 4.980 |
| **Amortizazioa:** | | | | | |
| Instalazioak, Altzariak eta Informazio Ekipamenduak | - | - | - | (339) | (339) |
| Lurrak eta eraikuntzak | (182) | (126) | 126 | (1.250) | (1.432) |
| Guztizkoa | (182) | (126) | 126 | (1.589) | (1.771) |
| Balio-galerarengatiko narriadura | - | - | - | - | - |
| **Higiezinetako Inbertsioak Garbia** | **217** | **(126)** | **(138)** | **3.256** | **3.209** |

*2018ko ekitaldia*

| | Milako euro | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | Hasierako saldoa | Eransketak / Zuzkidurak | Irteerak edo Kenketak | Intsuldaketak | Amaierako saldoa |
| **Kostua:** | | | | | |
| Instalazioak, Altzariak eta Informazio Ekipamenduak | - | - | - | - | - |
| Lurrak eta eraikuntzak | 135 | - | - | 264 | 399 |
| Guztizkoa | 135 | - | - | - | 399 |
| **Amortizazioa:** | | | | | |
| Instalazioak, Altzariak eta Informazio Ekipamenduak | - | - | - | - | - |
| Lurrak eta eraikuntzak | (60) | (5) | - | (117) | (182) |
| Guztizkoa | (60) | (5) | - | (117) | (182) |
| Balio-galerarengatiko narriadura | - | - | - | - | - |
| **Higiezinetako Inbertsioak Garbia** | **75** | **(5)** | - | **147** | **217** |

Egoera-balantzeko "Higiezinetako Inbertsioak" epigrafeak, Fundazioak errentan duen Julio Urkixo kaleko 41. zenbakiko eta Arbide I Dorreko (Biokutxa) lokalak hartzen ditu barnean. Biokutxako gunea 2019ko urtarrilaren 1ean sailkatu da epigrafe horretan. Errenteria kaleko lokal hori 2018ko irailaren 1ean sailkatu zen epigrafe horretan, baina 2019ko abenduaren 17an saldu ondoren baja eman zaio balantze kontsolidatuan 2019ko abenduaren 31n. Ekitaldian lokal horien errentamenduarengatik lortutako diru-sarrerak 15 milako euro dira, eta erantsitako galera-irabazien kontu kontsolidatuaren "Jardueraren beste diru-sarrera batzuk" epigrafean jasota daude.

Gainera, memoria honekin batera doan IV. eranskinean EAEko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 25. artikuluak eskatutako informazioa zehatz-mehatz azaldu da, Taldearen balantze kontsolidatua osatzen duten ondare-ondasunen inbentarioari dagokionez.

## 8. Epe luzerako finantza-inbertsioak

### *8.1 Taldeko erakundeetan eta elkartuetan egindako epe luzerako inbertsioak*

Balantze kontsolidatuaren epigrafe hori honela banakatzen da 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n:

| | Milako euro | |
|---|---|---|
| | 2019 | 2018 |
| **Taldeko erakundeak (Mendekoak)** | | |
| Balio gordina- | | |
| Kotizatu gabeak | 7.088 | 6.481 |
| Aktibo-narriaduragatiko balio-zuzenketak | (7.088) | (6.481) |
| Kobratzeko dauden dibidenduak | - | - |
| | - | - |
| **Erakunde elkartuak** | | |
| Balio gordina- | | |
| Kotizatu gabeak | 1.567.900 | 1.563.904 |
| Aktibo-narriaduragatiko balio-zuzenketak | - | (90) |
| Baliokidetzan jartzeagatiko doikuntzak | 167.987 | 109.686 |
| | **1.735.887.** | **1.673.500** |

2019ko ekitaldian, Etxegi XXI, SLUk 1 milako eurotan zabaldu du kapitala beren balio nominalean jaulkitako 20 partizipazio sozial berriren jaulkipenaren bidez, bakoitza 60 eurokoa, 832 milako euroko bereganatze-prima totalarekin, zabalkundearen zenbateko totala 833 milako euro izanik. Fundazioak hartu ditu bere gain partizipazio osoak. Kapital-zabalkuntza hau dela-eta hartuko partizipazioak despoltastuta geratu dira erabat, bereganatze-prima osoarekin batera, Fundazioak Etxegi XXI, SLU aurrean zeukan kredituaren konpentsazioaren bidez.

Era berean, Fundazioak 10 mila euroko ekarpena egin dio Etxegi XXI, SLUri (17.400 euro 2018ko ekitaldian). Ekarpenari dagokion zenbateko hori zein lehen adierazitako kapital-zabalkuntza narriatuak izan dira aurreko ekitaldietako irizpideari jarraikiz, promozioen garapenean izan den atzerapenarengatik. Itxieraren datan, partaidetza erabat narriatuta dago.

Partaidetzen narriadurak "Finantza-tresnen besterentzeengatiko narriadura eta emaitza" epigrafean erregistratu dira, erantsitako galera-irabazien kontu kontsolidatuan.

2018ko abenduaren 31n, ViveBiotech SL sozietatearen % 26,84ko partaidetza zuen fundazioak. 2019ko ekitaldian, 3.004 milako euroko kapital-zabalkuntza egin du sozietate horrek. Fundazioak ez du egikaritu harpidetzeko bere lehentasunezko eskubidea, eta horrenbestez, Fundazioaren partaidetza-ehunekoa gutxitu egin da, % 16,78an kokatu delarik. Horrenbestez, Fundazioak ez du inolako eragin esanguratsurik ViveBiotech SL sozietatearen gain, eta, hori horrela, sozietatean duen partaidetza epe luzerako Finantza Inbertsio gisa sailkatu du Fundazioak berak (8.2 oharra).

Sailkapen-aldaketa horren ondorioz, partaidetzaren balioespen-aldaketa bat izan da, Fundazioa salmentarako erabilgarri dagoen finantza-aktibo gisa balioesterakoan. Horrela, ekitaldiaren emaitza-kontu kontsolidatuaren "Narriadura eta finantza-tresnengatiko besterentzeengatiko emaitza" epigrafean erregistratuta dagoen 90 milakoko zenbatekoa duen narriaduraren itzulketari ekin dio Fundazioak, eta 390 milakoko zenbatekoa duten gainbalio batzuk erregistratzeari, gainbalio horiek erantsitako balantze kontsolidatuaren "Balio-aldaketagatiko doikuntzak" epigrafean erregistratu direlarik.

2019ko eta 2018ko ekitaldietan "Taldeko erakundeetan eta elkartuetan egindako epe luzerako inbertsioak" epigrafearen saldoaren xehetasuna honako hau izan da:

| | Milako euro | |
|---|---|---|
| | 2019 | 2018 |
| Partaidetzaren kostua | 1.567.900 | 1.563.815 |
| Baliokidetzan jartzeagatiko emaitza | 109.025 | 101.726 |
| Baliokidetzan jartzeagatiko erreserbak | 114.187 | 60.006 |
| Kobratutako dibidenduak | (55.225) | (52.047) |
| **Saldoa ekitaldiaren amaieran** | **1.735.887** | **1.673.500** |

2019ko eta 2018ko ekitaldietan gehitu egin da saldoa bankuaren partaidetzaren 4.950 eta 3.837 milako euroko zenbatezkoaz, partaidetza horrekiko Fundazioak sortutako kreditu fiskal jakin batzuk jasotzeari buruz 2019ko ekitaldian aplikatutako kontabilitate-irizpidearen aldaketaren ondorioz (ikusi 2.6 eta 14.2 oharrak).

### *8.2 Epe luzerako finantza-inbertsioak*

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, bere osotasunean salmentarako erabilgarri dauden aktibo gisa sailkatu den balantzearen epigrafe honen banakapena honako hau da:

| | Milako euro | |
|---|---|---|
| | 2019 | 2018 |
| Ondare-tresnak | | |
| Kotizatua | 28.110 | 24.819 |
| Kotizatu gabea | 31.189 | 28.845 |
| Aktibo-narriaduragatiko balio-zuzenketak | (2.823) | (278) |
| | **56.476** | **53.386** |

2019ko ekitaldian, adimen artifizialaren esparruan konpainia bateko partaidetza minoritario bat erosi du Fundazioak, 1.000 milako euroko zenbatekoaz Gainera, Fundazioak intsuldatu egin du 1.344 milako euroko zenbatekoaz ViveBiotech sozietatean duen partaidetza "Epe luzerako taldeko erakundeetako eta haiei elkartutako inbertsioak" epigrafetik "Epe luzerako finantza-inbertsioak" epigrafera eragin esanguratsua galtzearen ondorioz (8.1 oharra). Era berean, partaidetu bateko narriaduragatiko balio-zuzenketa bat erregistratu du Fundazioak 2.545 milako euroko zenbatekoaz, diru-kopuru hori erantsitako emaitza-kontu kontsolidatuaren "Narriadura eta finantza-tresnengatiko besterentzeengatiko emaitza" epigrafean erregistratu delarik.

2018ko ekitaldian Fundazioak Talde Gestión SGEIC SA enpresaren 811 akzio eskuratu zituen, 125 milako euroko zenbatekoarekin. Gainera, Nesplora Neuroscience Support Systems SL sozietatearen kapital-zabalkuntza batean parte hartu zuen, 5.493 partizipazio harpidetuz 28 milako euroko zenbateko totalaz. Fundazioak 28 milako euro zuzkitu ditu "Aktiboen narriaduragatiko balio-zuzenketak" kontzeptupean Nesplora Neuroscience Support Systems SLko partaidetza osagarriarengatik. Era berean, ez du inolako partizipaziorik saldu aurreko ekitaldietan erositako ondare-tresnatan.

Gainera, "Ondare-tresnak – Kotizatua" eta "Ondare-tresnak – Ez-Kotizatua" gisa sailkatutako inbertsioen arrazoizko balioan izandako balio-aldaketak 3.290 milako euro (1.385 milako euro 2018ko ekitaldian) eta 390 milako euro izan dira (zenbatekorik ez kontzeptu horrengatik 2018ko ekitaldian) izan dira hurrenez hurren (ikus 12. eta 14.2 oharrak).

### *8.3 Finantza-tresnen izaerari eta arrisku-mailari buruzko informazioa*

Informazio kualitatiboa

Taldearen finantza-arriskuen kudeaketa Zuzendaritza Nagusian zentralizatzen da, eta interes-tasa eta kanbio-tasen aldakuntzen esposizioa eta kreditu- eta likidezia-arriskuen esposizioa kontrolatzeko behar diren mekanismoak ezarri ditu Zuzendaritza Nagusiak. Taldean eragina duten finantza-arrisku nagusiak zein diren adieraziko dugu jarraian:

a) *Kreditu-arriskua:*

Taldeak Kutxabanken ditu (ikus 1. oharra) altxortegia eta aktibo likido baliokideak, eta finantza-erakunde horrek kreditu-maila handia dauka.

Kobratzeko mantentzen diren saldoak aintzat hartuta, hirugarrenekiko kreditu-arriskuaren kontzentrazio esanguratsurik ez da nabari.

Finantza-tresnei lotutako kreditu-arriskuari dagokionez, Taldeak ezarritako politika zuhurtzia- eta dibertsifikazio-printzipioetan oinarritu da.

b) *Likidezia-arriskua:*

Likidezia ziurtatzeko eta bere jardueratik eratorritako ordainketa-konpromiso guztiak bete ahal izateko, Fundazioak altxortegia du bere balantze kontsolidatuaren erakusgarri, baita Finantza Erakunde batekiko finantziazio-linea bat ere. (ikus 10. oharra).

c) *Merkatu-arriskua:*

Fundazioaren finantziazio-iturri nagusia jasotako dibidenduak direnez, lortutako besteren finantziazioaren interes-tasak ez du arrisku handirik. Era berean, balantzeko masetan kontrako eragina izan dezaketen merkatuen aurkako bilakaeratik datozen galerak izateko arriskua (ikus 10. oharra) ez da batere esanguratsua.

d) *Kutxabank SAko partaidetzari lotutako arriskuak:*

Kutxabank SAren gain duen partaidetzak partaidetza horren balorazio-arrisku bat dakar, Banku Fundazioaren ondarean modu esanguratsuan eraginpean har dezakeena. Era berean, diru-sarreren kontzentrazio-arriskua ere dakar, partaidetza horretatik jasotzen duen dibidendua baita Banku Fundazioaren finantzaketa-iturri nagusia. Arrisku horiek arintzeko, partaidetza horren jarraipena egiten du Banku Fundazioak zenbait adierazlearen azterketan oinarrituta.

## 9. Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk

Erantsitako balantzearen "Hornitzaileak, taldeko erakundeak eta erakunde elkartuak" epigrafean, Kutxabanken zerbitzu-emateagatiko gastuetatik ekitaldia ixtean ordaintzeke dauden zenbatekoak jaso dira bereziki (ikus 15.3 eta 17.1 oharrak).

## 10. Taldeko erakundeekiko eta erakunde elkartuekiko zorrak

2016ko abenduaren 20an, Fundazioak finantziazio-linea bat lortu zuen 25.000 mila euroko zenbatekoko mugarekin Kutxabank SAren eskutik, eta 2018ko ekitaldian 27 milako euro ordaindu ditu (ikus 17.1 oharra), gaineratutako emaitza-kontu bateratuaren "Finantza-gastuak" epigrafean erregistratutako komisioen eta interesen kontzeptupean, besteak beste. 2018ko ekainaren 20an finantzaketa-linea hori mugaeguneratu egin zen.

2018ko uztailaren 18an finantzaketa-linea berri bat harpidetu zen, 25.000 milako euroko zenbatekoaz, Kutxabank SArekin, muga-eguna 2019ko abenduaren 31 izanik. 2018ko abenduaren 31n kreditu-kontu hori ez da deus ere erabili.

2019ko abenduaren 31n mugaeguneratu da Kutxabankekin zuen kreditu-linea. Muga-egunera arte, 19 milako euroko ordaindu ditu kontuak interesen eta komisioen kontzetupean, erantsitako kontuaren "Finantza Gastuak" epigrafean erregistratutako interesen eta komisioen kontzeptupean, besteak beste. Era berean, 2019ko uztailaren 30ean, kreditu-linea berri bat harpidetu du beste finantza-erakunde batekin, 25.000 milako euroko zenbatekoaz. 2019ko abenduaren 31n 2 milako euroko saldo hartzekoduna islatzen duen kreditu-kontu horrek. 2019ko ekitaldian, 26 milako euroko ordaindu ditu kontuak interesen eta komisioen kontzeptupean, erantsitako emaitza-kontuaren "Finantza Gastuak" epigrafean erregistratutako interesen eta komisioen kontzeptupean, besteak beste.

## 11. Ondare garbia

Erantsitako balantze kontsolidatuaren epigrafe hori 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n honela banakatzen da :

| | Milako euro | |
|---|---|---|
| | 2019 | 2018 |
| Fundazio-zuzkidura | 30 | 30 |
| Erreserbak | 1.790.129 | 1.696.564 |
| Ekitaldiko soberakina | 95.031 | 89.055 |
| | **1.885.190** | **1.785.649** |

*Fundazio-zuzkidura*

Fundazioak, gizarte-xedea duen ongintzazko erakundea izaki, ez dauka kapital sozialik, ezta, beraz, akziorik edo bere ondarea ordezkatzen duen bestelako titulurik.

Fundazio-zuzkidura eratzen da Fundatzailearen ekarpenekin eta Taldea indarrean dagoen bitartean hirugarren pertsonek kontzeptu horren harira ekartzen dituzten ondarezko ondasun eta eskubide guztiekin, edota Patronatuak fundazio-xedeetara bideratzen dituen ondarezko ondasun eta eskubide iraunkor guztiekin.

Fundazioa eraldatu zen egunean, 30 milako euroko fundazio-funtsa finkatu zen, diru-ekarpen hori kontu korronte batean sartuz (ikus 1. oharra).

Fundazioak ez dauka 2019ko abenduaren 31n fundazio-xedeei atxikita ez zegoen ondasunik.

*Erreserbak*

Erantsitako balantze kontsolidatuaren "Erreserbak" epigrafea honela banakatzen da 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n:

| | Milako euro | |
|---|---|---|
| | 2019 | 2018 |
| **Sozietate nagusiaren erreserbak** | **1.680.591** | **1.638.047** |
| **Erreserbak sozietate kontsolidatuetan** | **(4.649)** | **(1.489)** |
| Erreserbak taldeko erakundeetan Etxegi XXI | (4.649) | (1.489) |
| **Erreserbak baliokidetzan jarritako sozietateetan** | **114.187** | **60.006** |
| Erakunde elkartuen erreserbak | | |
| Kutxabank SA | 114.187 | 59.988 |
| ViveBiotech SA | - | 18 |
| | **1.790.129** | **1.696.564** |

*Ekitaldiko soberakina*

Erantsitako emaitza-kontuaren "Ekitaldiko soberakina" epigrafea honela banakatzen da 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n:

| | Milako euro | |
|---|---|---|
| | 2019 | 2018 |
| **Sozietate nagusiaren ekitaldiko soberakina** | **41.247** | **39.386** |
| **Sozietate kontsolidatuen ekitaldiko soberakina** | **(16)** | **(10)** |
| Taldeko erakundeen ekitaldiko soberakinaEtxegi XXI | (16) | (10) |
| **Baliokidetzan jarritako sozietateen ekitaldiko soberakina** | **53.800** | **49.679** |
| Erakunde elkartuen ekitaldiko soberakina | | |
| Kutxabank SA | 53.800 | 49.792 |
| ViveBiotech SA | - | (113) |
| | **95.031** | **89.055** |

## 12. Balioa aldatzeagatiko doikuntzak

Balantze kontsolidatuaren epigrafe hori honela banakatzen da 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n:

| | Milako euro | |
|---|---|---|
| | 2019 | 2018 |
| Saltzeko erabilgarri dauden finantza-aktiboak (8.2 oharra): Ondare-tresnak | 3.695 | 936 |
| | **3.695** | **936** |

“Saltzeko erabilgarri dauden finantza-aktiboak” atalaren barruan bildutako saldoa, Taldearen Ondare garbiaren barruan sailkatu behar diren finantza-tresna horien arrazoizko balioaren aldaketen zerga-eraginaren zenbateko garbiari dagokio. Finantza-aktiboen salmenta egiten denean, aldakuntzak galera-irabazien kontu kontsolidatuan erregistratzen dira.

## 13. Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk

Taldeak kontu korronteetan dauzkan saldoak bildu dira epigrafe honetan. 2019ko ekitaldian Kutxabank SAren kontu korronteek erantsitako galera-irabazien kontu kontsolidatuko “Balore negoziagarrien diru-sarrera finantzarioak eta taldeko erakundeen eta elkartuen beste finantza-tresna batzuk” epigrafean erregistratu beharreko interesik ez dute sortu. 2019ko ekitaldian gordailuen urteko interes-tasa % 0ren inguruan egon da (% 0 izan zen 2018ko ekitaldian).

## 14. Egoera fiskala

### *14.1 Administrazio publikoekiko saldo korronteak*

2019ko abenduaren 31n, ekitaldiko azken hiruhilekoan egindako PFEZren atxikipenak jaso ziren epigrafe honetan, eta 47 milako euro izan ziren guztira. 2018ko abenduaren 31n, ekitaldiko azken hiruhilekoan egindako PFEZaren atxikipenak jaso ziren epigrafe honetan, eta 41 milako euro izan ziren guztira.

### *14.2 Kontabilitate-emaitza eta zerga-oinarria berdinkatzea*

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauan zuzenketa teknikoak eta beste zerga-egokitzapen batzuk sartzeko abenduaren 16ko 17/2014 Foru Arauari jarraikiz, banku-fundazioek Sozietateen gaineko Zergaren erregimen orokorraren arabera ordainduko dituzte zergak, eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-erregimenari eta mezenasgoarentzako zerga-pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauan aurreikusitako zerga-erregimen berezia ez zaie aplikatuko.

Kontsolidazio fiskaleko Erregimenaren arabera ordaintzen ditu zergak Taldeak Sozietateen gaineko Zergan, Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauan ezarritakoa eta 2014ko urtarrilaren 1ean indarrean hasitakoa betez, Kutxabank SA buru duen Talde Fiskalaren mendeko sozietate gisa.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna (hemendik aurrera, Ekonomia Ituna) onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 14. eta ondorengo artikuluetan ezarritakoaren arabera, erakundea biltzen duen Talde Fiskala Sozietateen gaineko Zerga ordaintzen ari zaie dagokien Zerga Administrazioei Lurralde bakoitzean egindako eragiketa kopuruaren arabera, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten hiru Lurralde Historikoetan, Ekonomia Itunak zehazten duenez.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak ezartzen duenez, Banku Fundazioek zerga-oinarria zehazterakoan, euren emaitzen zati bat kendu ahal izango dute, ongintza- eta gizarte-ekintzak finantzatzeko erabiltzen duten zenbatekoa, hain zuzen ere. Gainera, banku-fundazioek ongintza- eta gizarte-ekintzari egindako zuzkidurari dagokionez, partaidetutako kreditu-erakundeen zerga-oinarria murrizteko aukera izango da,

erakunde horien eskutik jasotako dibidenduek banku-fundazioen guztizko diru-sarreretan duten proportzioaren arabera, dibidendu horiek gehieneko muga izanik.

Erakunde horiek ongintza- eta gizarte-ekintzari esleitutako kopuruak aplikatuko dira, gutxienez % 50ean, esleipenari dagokion ekitaldian edo hurrengoan, lotutako inbertsioak egiteko edo ekintzaren eraginpeko erakunde edo establezimenduei eusteko gastuak ordaintzeko.

16. oharrean aplikazio-koadroak jaso dira, errenta eta diru-sarrerak zertara bideratu diren adierazteko.

Honako hau da 2019ko eta 2018ko ekitaldiko kontabilitate-emaitzaren eta Sozietateen gaineko Zergaren oinarriaren arteko berdinkatzea:

| | Milako euro | |
|---|---|---|
| | 2019 | 2018 (*) |
| **Zergen aurreko kontabilitate-emaitza** | **89.907** | **83.165** |
| **Diferentzia iraunkorrak** | | |
| Ongintza- eta gizarte-ekintzarako esleitutako kopuruak | (17.752) | (20.034) |
| Mozkinetako partaidetza baliokidetzan jartzeagatik (8.1 eta 11. oharrak) | (109.025) | (101.726) |
| Beste sozietateeetako dibidenduen salbuespena | (2.350) | (2.330) |
| Partaidetzen narriadurak (8. oharra) | 3.152 | 99 |
| Partaidetzen narriaduren itzulketa | (64) | - |
| Merkataritza-funts finantzarioaren narriadura | (425) | (420) |
| Ongintza- eta gizarte-ekintzaren mantentze-gastuak | 17.752 | 20.034 |
| Kredituen narriaduren itzulketa (8.1 oharra) | (597) | - |
| OGEri atxikitako aktibo-salmentaren onuraren salbuespena | (109) | - |
| Kredituen barkamena (2.6 oharra) (*) | 940 | 124 |
| Beste zuzenketa batzuk | 271 | 52 |
| | (108.207) | (104.201) |
| **Kontabilitate-emaitza doitua** | **(18.300)** | **(21.036)** |
| **Aldi baterako diferentziak** | | |
| Zuzkidura garbiak. Beste hornidura eta pentsio-ordainketa batzuk | - | - |
| Amortizazio-zuzkidurak eta amortizazio-askatasuna | - | - |
| | | - |
| **Aurretiazko zerga-oinarria** | **(18.300)** | **(21.036)** |
| **Aurreko ekitaldietako zerga-oinarri negatiboen konpentsazioa** | - | - |
| **Zerga-oinarria** | **(18.300)** | **(21.036)** |
| Kuota osoa (% 28) | - | - |
| Kenkariak | - | - |
| Atxikipenak eta konturako ordainketak | (30) | (4) |
| **Ordaintzeko (itzultzeko) kuota** | **(30)** | **(4)** |

*(*) 3.6 oharrean adierazitako aldaketaren ondorioz, zifra horiek berradierazi egiten dira konparaziorako. Berradierazpenak ez du eraginpean hartzen 2018ko ekitaldiaren tributazioa Zerga Oinarria aldaketarik gabe mantendu baita tributazioaren ondoren, baina hemen bildutako zifrak ez datoz bat 2018. urteari dagokion aurkeztutako deklarazioarekin.*

2019ko eta 2018ko ekitaldietako diferentzia iraunkorrak bat datoz batez ere Kutxabank SAn, Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SAn, Ezarri SAn, Inversiones Zubiatzu SAn eta Talde gestion SGEICn dituen partaidetzengatik (azken horrena ez dira integratzen % 50ean) eratorritako jasotako dibidenduak zerga-oinarrian ez integratzearekin, sozietate partaidetuen balio-narriadurekin, partaidetutako sozietateen kreditu-itzulketekin eta 2018ko ISren kredituaren barkamenari lotutako dohaintza ez-kengarriagatiko gastuarekin

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n Fundazioak ez zuen denbora-aldeen eraginez geroratutako zergarengatiko aktiborik edo pasiborik erregistratu.

Taldeak aurreikusita du lehentasunezko jardueretarako ekarpenengatiko kenkari bat kreditatzea, 4 milako euroko zenbatekoaz, 2019ko Sozietateen gaineko Zergan (4 milako euro 2018ko Sozietateen gaineko Zergan).

### *14.3 Kontabilitate-emaitza eta sozietateen gaineko zergarengatiko gastua berdinkatzea*

Kontabilitate-emaitzaren eta sozietateen gaineko zergarengatiko gastuaren arteko berdinkatzea honako hau da (milako eurotan):

| | 2019 | 2018 |
|---|---|---|
| Zergen aurreko kontabilitate-emaitza | 89.907 | 83.165 |
| Diferentzia iraunkorrak | (108.207) | (104.201) |
| % 28ko kuota | - | - |
| Denbora-diferentzien inpaktua | - | - |
| Kenkariak | - | - |
| Zerga-oinarri negatiboak (aktibazioa) | (5.124) | (5.890) |
| **Galera-irabazien kontuan jasotako zergarengatiko gastua guztira** | **(5.124)** | **(5.890)** |

### *14.4 Zerga geroratuarengatiko aktibo eta pasiboak*

Zerga geroratuko aktiboak ditu erregistratuak Fundazioak talde fiskalaren barruan ondoz ondoko 30 urteetan amaitzen diren zergaldietan aplikatuak izango direla irizten dion kreditu fiskalengatik, ekitaldia ixten den egunean aplikatzekoa eta indarrekoa den legeria fiskalaren barruan:

| | Milako euro | |
|---|---|---|
| | 2019 | 2018 |
| Denbora-diferentziak (aurreratutako zergak): | - | - |
| Zerga-oinarri negatiboak | | |
| 2018an sortuak | - | 5.890 |
| 2019an sortuak | 5.124 | - |
| **Zerga geroratuarengatiko pasiboak guztira** | **5.124** | **5.890** |

Aktibatu gabeko kreditu fiskalen xehetasuna, Zuzendaritzaren ustez haien etorkizuneko konpentsazioak ez dituelako kontabilitate-arauan aurreikusitako probabilitate-betekizunak betetzen:

| | Milako euro |
|---|---|
| Denbora-diferentziak (aurreratutako zergak): | - |
| Zerga-oinarri negatiboak | |
| 2012an sortuak | 211 |
| 2013an sortuak | 110 |
| Gauzatzeke dauden kenkariak eta beste batzuk | 8 |
| **Zerga geroratuarengatiko aktibo erregistratu gabeak guztira** | **329** |

Sozietateen gaineko Zergaren 2/2014 Foru Arauak, besteak beste, 30 urteko muga ezartzen die zerga-oinarri negatiboen konpentsazioari. 2018ko abenduaren 31 baino lehen sortutako zerga-oinarriak, berriz, sortu ondoko 30 urteetan amaitzen diren zergaldietan konpentsatu ahal izango dira.

2019ko eta 2018ko ekitaldietan salmentarako erabilgarri dagoen zorroaren arrazoizko balioaren arabera egindako balioespenaren ondorioz, epigrafe horren xehetasunak honako hauek dira:

| | Milako euro | |
|---|---|---|
| | 2019 | 2018 |
| Salmentarako erabilgarri dagoen zorro-plusbalioengatik (8. oharra) | 1.285 | 364 |
| **Zerga geroratuarengatiko pasiboak guztira** | **1.285** | **364** |

### *14.3 Egiaztatzeke dauden ekitaldiak eta ikuskatze-jardunak*

Indarreko legeriak ezartzen duenez, zergak ezin daitezke behin betiko likidatutzat jo zerga-agintariek aurkeztu zaizkien aitorpenak ikuskatu arte edo lau urteko preskripzio-epea amaitu arte.

Taldeko zuzendari nagusiaren ustez, zerga horien likidazioak ongi gauzatu dira, eta horregatik, eragiketei emandako zerga-tratamenduaren arabera indarrean dagoen araudia interpretatzean desadostasunak sortuko balira ere, horren ondorioz sor litezkeen pasiboek, azkenean gauzatuko balira, ez lukete erantsitako urteko kontuetan eragin nabaria izango.

## 15. Diru-sarrerak eta gastuak

### *15.1 Laguntzen eta bestelakoen ondoriozko gastuak*

"Laguntza eta esleipenen itzulera" izeneko partidan aktibo material jakin batzuen erabilera-lagapenengatiko zuzenketen itzulketen ondorioa biltzen da, 321 eta 152 milako euro 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, hurrenez hurren.

Galera-irabazien kontuaren "Laguntza monetarioak" izeneko partidaren barruan bildu dira Fundazioak Kutxa Fundazioari, Kutxagestión Zerbitzuak SLUri eta Onkologikoa Fundazioari (1.5 eta 17.1 oharrak) haien xede soziala betetzeko emandako laguntzak.

Era berean, ekitaldi honetan egindako higiezinen lagapenak biltzen ditu erantsitako emaitza-kontu kontsolidatuaren "Laguntza ez-monetarioak" partidak ekitaldian (ikus 6. oharra) baita 682 milako euroko zenbatekoan emandako laguntza ez-monetarioak ere, 682 milako euroko zenbatekoaz, 596 Fundación Onkologikoa Fundazioari emandako laguntza ez-monetarioei dagokienez (1.5 eta 17.1 oharrak).

Taldeak bere helburu eta jarduerei buruzko informazio nahikoa ematen du, onuradun izan daitezkeenek eta gainerako interesdunek horien berri izan dezaten. Informazio hori jendaurrean jartzen du beraz, ongi nabarmenduta, nagusiki bere webgunearen bitartez (www.kutxa.eus).

### *15.2 Ondare-tresnetako partaidetzen diru-sarrerak*

2019ko eta 2087ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiaren galera-irabazien kontuaren epigrafe hau honela banakatzen da:

| | Milako euro | |
|---|---|---|
| | 2019 | 2018 |
| Baliokidetzan jarritako sozietateen mozkinetan parte hartzea (8.1 oharra) | 109.025 | 101.726 |
| Bestelako kapital-tresnak | | - |
| | **109.025** | **101.726** |

### *15.3 Jardueraren beste gastu batzuk*

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldien galera eta irabazien kontuaren epigrafe hau honela banakatzen da:

| | Milako euro | |
|---|---|---|
| | 2019 | 2018 |
| Kanpoko zerbitzuak | | |
| Errentamenduak eta kanonak (9. eta 17.1 oharrak) | 22 | 22 |
| Konponketak eta Kontserbazioa | 34 | 15 |
| Azpikontratatutako administrazio-zerbitzuak (9. eta 17.1 oharrak) | - | 62 |
| Publizitatea, propaganda eta baliabide propioak | 23 | 27 |
| Txosten teknikoak (*) | 346 | 156 |
| Aseguruak | 34 | 31 |
| Beste gastu batzuk | 8 | 18 |
| | 468 | 331 |
| Tributuak | 82 | 117 |
| Kudeaketa korronteko beste gastu batzuk | 82 | 53 |
| | **632** | **501** |

(*) Aurreko xehetasunaren "Txosten teknikoak" atalaren kontuaren saldoan, Taldearen urteko kontu kontsolidatuen auditoria-zerbitzuei dagozkien ordainsariak jaso dira (ikus 18.4 oharra).

### *15.4 Langile-gastuak*

Taldeak langileak ditu plantillan egungo ekitaldiko otsailetik aurrera. Otsailaren 1etik aurrera, plantillan 3 langile inkorporatu zituen "Langile teknikoak eta erdi-mailako agintariak" kategorian. Ondoren, apirilaren 1etik aurrera zuzendari nagusia inkorporatu zen, eta azkenik, apirilean eta urrian, bi enplegatu gehiago inkorporatuta, Fundazioak 2019ko abenduaren 31n duen plantilla osatu zen.

Gaineratutako emaitza-kontu kontsolidatuko epigrafe honen osaera honako hau da:

| | Milako euro | |
|---|---|---|
| | 2019 | 2018 |
| Soldatak eta lansariak | (549) | (399) |
| Gizarte Segurantza Fundazioaren kargura | (92) | (60) |
| Beste karga sozial batzuk | (20) | (16) |
| | **(661)** | **(475)** |

Fundazioan ez dago % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duen langilerik. Era berean, ekitaldiaren amaieran sexuen araberako banaketa, kategoriatan xehatua, honako hau da:

| Kategoriak | 2019 | | 2018 | |
|---|---|---|---|---|
| | Gizonak | Emakumeak | Gizonak | Emakumeak |
| Zuzendaritza | 1 | - | 1 | - |
| Langile teknikoak eta erdi-mailako agintariak | 1 | 4 | 1 | 4 |
| **Guztizkoa** | **2** | **4** | **2** | **4** |

### *14.5 Jardueraren beste diru-sarrera batzuk*

Taldeak bere finantza-inbertsioetatik sortu dituen errentamenduengatiko diru-sarrerak biltzen ditu nagusiki epigrafe honek (7.3 oharra). Era berean, erantsitako emaitza-kontu kontsolidatuaren epigrafe honen barruan bildu da, 2019ko ekitaldian, Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioa ekitaldi honetan desegin izanaren ondoriozko errenten atribuzioagatik lortutako diru-sarrera, Taldeak 69 milako euroko zenbatekoa jaso duelarik.

## 16. Erakundearen jarduera. Ondare-elementuak xede propioetarako aplikatzea. Administrazio-gastuak

### *16.1 Erakundearen jarduera*

EAEko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean eta Lege hori garatzen duen Erregelamenduan ezarritakoa betez, Sozietate Nagusiaren jarduerei dagokien garrantzizko informazioa zehatz-mehatz azalduko dugu jarraian (milako eurotan):

**I. Egindako jarduerak**

**A) Identifikazioa**

| | |
|---|---|
| Jardueraren izena | GIZARTE-JARDUERAREN SUSTAPENA |
| Jarduera mota (propioa edo merkataritzakoa) | PROPIOA |
| Jardueraren identifikazioa sektoreka | GIPUZKOAKO GIZARTEA ORO HAR |
| Jarduera non garatzen den | GIPUZKOA |

Jardueraren xedea da Kutxa Fundazioari, Onkologikoa Fundazioari eta Kutxagestión Zerbitzuak SLUri diru-ekarpenak egitea, gizarte-jarduerako beren urteko programak garatzeko aukera izan dezaten.

**B) Jardueran erabilitako Giza Baliabideak**

| Mota | kop. | | orduak urtean | |
|---|---|---|---|---|
| | **Aurreikusia** | **Egina** | **Aurreikusia** | **Egina** |
| Soldatako langileak | 6 | 6 | 9.520 | 9.520 |
| Zerbitzu-kontratuarekin kontratatutako langileak | - | - | - | - |
| Langile boluntarioak | - | - | - | - |

**C) Jardueraren onuradunak edo erabiltzaileak**

| Mota | kop. | |
|---|---|---|
| | **Aurreikusia** | **Egina** |
| Pertsona fisikoak | 717.197 | 717.197 |
| Pertsona juridikoak | 6 | 6 |

## D) Jardueran erabilitako baliabide ekonomikoak

| GASTUAK/INBERTSIOAK | ZENBATEKOA | |
|---|---|---|
| | **AURREIKUSIA** | **EGINA** |
| Laguntzen eta bestelakoen ondoriozko gastuak | **18.655** | **17.213** |
| a) Laguntza monetarioak | 18.655 | 16.531 |
| b) Laguntza ez-monetarioak | - | 682 |
| c) Kolaborazioen ondoriozko gastuak eta gobernu-organoen gastuak | - | - |
| Produktu amaituen eta fabrikatzen ari direnen izakinen aldakuntza | - | - |
| Zuzkidurak | - | - |
| Langile-gastuak | 83 | 83 |
| Beste ustiapen-gastu batzuk | 721 | 231 |
| Ibilgetuaren amortizazioa | 225 | 225 |
| Ibilgetua besterentzeagatiko narriadura eta emaitza | - | - |
| Finantza-gastuak | - | - |
| Arrazoizko balioaren aldaketak finantza-tresnetan | - | - |
| Truke-diferentziak | - | - |
| Finantza-tresnen besterentzeengatiko narriadura eta emaitza | - | - |
| Mozkinen gaineko zergak | - | - |
| **Gastuen subtotala** | **19.684** | **17.752** |
| Ibilgetu-erosketak (ondare historikoaren ondasunak salbu) | 922 | 295 |
| Ondare historikoaren ondasunen erosketak | - | - |
| Zor ez-komertzialaren kitapena | - | - |
| **Baliabideen subtotala** | 922 | 295 |
